

José Antonio Quijera Pérez, Nekane Osa Muñoa

Maskarak Euskal Herriko tradizioan



Maskarak Euskal Herriko tradizioan [edizio birtuala] / José Antonio Quijera Pérez, Nekane Osa Muñoa. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2009.

67 or. : ir.

ISBN: 978-84-8419-180-3

Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 1998. urteko ikerketarako laguntza jaso du. Ikerketa honen beste bertsio bat *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*, 11 (47-80) aldizkarian argitaratu da. Beste aldetik, Euskonews astekari birtualeko 481. zenbakian bi orriko laburpen bat azaltzen da.

José Antonio Quijera Pérez,
Nekane Osa Muñoa
**Maskarak Euskal Herriko
tradizioan**

ISBN: 978-84-8419-180-3

Aurkibidea

Orrialdea

1. Maskararen inguruan

- | | |
|--------------------------|-----|
| 1.1. Ideia nagusi batzuk | 5-8 |
| 1.2. Maskara eta urtaroa | 8 |

2. Maskarak neguko jaietan

- | | |
|--|-------|
| 2.1. Inauterietako maskarak | 9-11 |
| 2.2. Maskara eta maskaradunak | 11-13 |
| 2.3. Markina | 13-16 |
| 2.4. Altsasu | 16-18 |
| 2.5. Unanua | 18-21 |
| 2.6. Leitza | 21-23 |
| 2.7. Arizkun | 23-26 |
| 2.8. Errazu | 26-28 |
| 2.9. Lantze | 29-32 |
| 2.10. Lapurdi | 32-36 |
| 2.11. Zuberoa | 36-40 |
| 2.12. Euskal Herriko inauterietako beste leku eta maskarak | 41-46 |

3. Maskarak udako jaietan

- | | |
|---------------------|-------|
| 3.1. Udako maskarak | 47-49 |
| 3.2. Otsagi | 49-55 |
| 3.3. Oñati | 55-60 |

4. Ondorio batzuk	
4.1. Jaia eta maskara	60-61
4.2. Eiteak	61-62
4.3. Iragana eta oraina	62
5. Bibliografia	
5.1. Maskarei buruzko lanak eta liburu orokorrak	63
5.2. Maskarak Euskal Herriko erritoetan	63
5.3. Beste bibliografia lagungarria	64
5. Bibliographic Section	67

Maskara, Euskal Herriko zein beste lekuetako jai-errito desberdinen elementu osagarria da. Maskaren ikerketa lan honek aspektu etnografikoetatik sortzen da anda-lanean oinarrituz. Maskaren eite desberdinak jasotzen dira, irizpide batzuen bitartez sailkatu eta aztertuz. Gainera, maskara bakoitza bere jai edo erritoan bertan kokatzen da. Horrela, ikerlari eta irakurleari bere izaera ulergarriago bihur dakioko. Azkenik, inguruko maskarak Euskal Herrikoei alderatzen zaizkie kasu batzuetan.

Giltza-Hitzak: Maskara. Mozorroa. Neguko jaiak. Udaldiko jaiak.

La máscara es un elemento complementario de diferentes fiestas y ritos tanto de Euskal Herria como de otros lugares. El presente trabajo de investigación surge de sus aspectos etnográficos y se basa en el trabajo de campo. Se recogen diferentes tipos de máscaras y se las clasifica y estudia según determinados criterios. Además, cada máscara se sitúa en su fiesta o rito correspondiente. De esta forma, el carácter de la misma resultará más comprensible tanto para el investigador como para el lector. Por último, en algunos casos se comparan máscaras del entorno con las correspondientes a Euskal Herria.

Palabras Clave: Máscara. Disfraz. Fiestas de invierno. Fiestas de verano.

Le masque est l'un des éléments qui fait partie des différents rites festifs, aussi bien au Pays Basque qu'ailleurs. Cette étude sur le masque en aborde les aspects ethnographiques sur la base d'un travail de terrain. Il présente différents types de masques, classés et analysés en fonction de différents critères. Avec, en outre, l'association de chaque masque à sa fête ou à son rite correspondant, afin de faciliter la compréhension et l'étude, tant du chercheur que du lecteur. Et, pour terminer, quelques comparaisons des masques du Pays Basque avec ceux des régions voisines.

Mots Clé : Masque. Déguisement. Fêtes d'hiver. Fêtes d'été.

1. MASKARAREN INGURUAN

1.1. Ideia nagusi batzuk

Oro har, kultura desberdinetan oso objektu esanguratsu eta erabilgarria den maskara erritoaren eskutik gauzatzen da. Maskararen testuingurua errittoa bera da. Erritoari lotuta ez dagoen maskara bizia zailtasun handiz aurkituko da non-bait. Hots!, “bizirik” esan dugu.

Maskara edo masken euskarria erritoan sustraitzen bada, ezinbestekoa dagokigu adigai honen mamiari begirada bat ematea. Hau dela eta, hona hemen Ll. Duch antropologoaren definizioa, aukera bat beste askoren artean, alegi bat, azken finean:

RITO (Rite): Actualización colectiva del culto religioso, cuya eficacia es, al menos en parte, extraempírica. En este sentido cabe decir que el culto, en cuanto que conducta estereotipada del hombre, no se justifica del todo mediante una determinación limitada al mundo natural, sino que incluye relaciones entre el hombre y lo sobrenatural¹.

Errittoa kultu erlijiosoaren osagaia da. Zehatzago esanda oraingoz: nolabait, errittoa kultu erlijiosoaren adierazpen eta gaurkotze kolektiboa da. Hala ere, emandako definizioa ez dago osatuta. Edo gutxienez, soziologikoak diren beste adierazpenei lekua eman beharko lieke.

Edozein kasutan, errittoa eta erlijioaren arteko lotura mamitsua behin eta berriz aipatua suertatzen da erritoaren definizioetan. Eta inguru erlijioso horretan maskara kokatzen da. Ohar zehatza eman behar dugu orain: maskara erritoari lotuta dagokion arren, bien partaidetza etengabea ez da nahitaezkoa. Errittoa asko daude, Euskal Herrian eta kanpoaldean ere, zalantzarik gabe. Baina errittoa guztietan maskek ez dute parte hartzen, kasu batzuetan bakarrik baizik.

1. Hainbat Egile, “Conceptos clave de la Antropología Cultural”: Duch, Ll., *Rito*, 241 or. (Bartzelona, 1982).

T. Teutek erritoetako karatularen adierazpen erlijiosoaren bidean sakontzen du, hain zuzen ere, objektuaren funtzioa finkatu nahi duelarik:

Basically, a mask is a disguise. Its function may be to personify spirits, gods or ancestors, to assume social control, to educate or to elude responsibility for one's actions. –eta horrelako hitz esanguratsu eta nagusietan jarraitzen du– The use of mask is almost exclusively restricted to men – even when, as is often the case, the characters represented are female².

Funtzioaz, ikerlari askok ikuspuntu berdinerara jo dute orain arte. Izpiritu, jainko edota arbasoak gauzatu eta gaurkotzea maskararen definizio gehienetan agertzen den funtsezko osagarritzat hartzen da.

Goikoa bezalako adierak indartzeko, antropologoak eskuarki garapen gutxiko kulturetara zuzendu dira, edota kultura garatuak deiturikoen iraganera. Errittoa jasotzez gain, mito kantxara ekarri dute. C. Lévy-Strauss antropologo estrukturalistak ezin du planteatu maskararen ikerketa, hau ez bada garatzen mitoeikiko fluxu etengabea:

... ni más ni menos que los mitos, las máscaras no se pueden interpretar en sí mismas y por sí mismas, como objetos separados. Considerado desde el punto de vista semántico, un mito no adquiere sentido sino una vez devuelto al grupo de sus transformaciones; igualmente, un tipo de máscara, considerado desde el solo punto de vista plástico, réplica de otros, cuya éntasis y colores transforma asumiendo su individualidad. Para que esta individualidad se oponga a la otra máscara, es preciso y basta que impere una misma relación entre el mensaje que la primera máscara tiene por su función transmitir o connotar y el mensaje que, en la misma cultura o en una cultura vecina, la otra máscara se encarga de vehicular. Desde este punto de vista, por consiguiente, deberá apreciarse que las funciones sociales o religiosas asignadas a los diversos tipos de máscaras que oponemos para comparar guardan, entre ellas, la misma relación de transformación que la plástica, el grafismo y el colorido de las máscaras mismas, consideradas como objetos materiales. Y en vista de que a cada tipo de máscara se vinculan mitos que tienen por objeto explicar su origen legendario o sobrenatural y fundar su papel en el ritual, la economía, la sociedad, una hipótesis consistente en extender a obras de arte (pero que no son solamente eso) un método que se ha puesto a prueba en el estudio de los mitos (que son también eso) hallará verificación si, en último análisis, conseguimos sacar a la luz, entre los mitos fundadores cada tipo de máscara, relaciones de transformación homólogas de aquellas que, desde el punto de vista plástico nada más, prevalecen entre las máscaras propiamente dichas³.

Azken testu luze hau oso mamitsua da, inongo zalantzarik gabe. Horrexe-gatik, hain zuzen ere, gure ikerketara moztu gabe ekarri nahi izan dugu. Lévy-

2. TEUTEN, T., *Masks*, 8 or., (London, 1995).

3. LÉVY-STRAUSS, C., *La vía de las máscaras*, 18-19 or. (Mexiko, 1989).

Straussek ezin du burutu maskararen azterketa ez bada mito eta erritoaren eskuetatik helduta. Bere helburua maskaren adiera ulertzea da, azken batean. Objektuaren plastikotasuna adierazgarria baldin bada, eta horrela da, ikerketa ezin da maila horretan gelditu, sakonagoa izan behar du, funtsezko oinarrietara jo arte. Bere semantika erlijiosoa onartzen du aho betean. Baina, honekin batera, parekotasunez, gizarte baloreak jokura ekartzen ditu.

Antropologo ospetsu honek landutako ikerketetan, objektua bera eta erritoaren ildotik mitoaren esparrua erabiltzeko aukera ezin hobeia izan du, mitoak bizirik baitzegoen. Euskal Herrian gauzak ez dira horrela gaur egun. Errito eta maskara, maila jakin batean behintzat, bizirik daudela baieztatu dezakegu (ez kasu guztietan, halere). Baina, mitoak ezin dugu gauza berdina adierazi. Ez badugu hipotesiaren eremura jotzen (non, azken denboraldian hainbeste balizkoren ondorioz, baieztatu gabekoa fikzioaren tresna bihurtu dela dirudien), gure kokapen sendo bakarra errittoa da. Landa-lanean errittoa behatzen dugu gure inguruan, baina errittoi dagokion mitoak hitz bizidun gutxi! Hau da errealitatea. Hortik aurrera, hipotesiak luza daitezke, baieztatzeko zailtasun ikaragarriak aurkitzen dituztenak gahenetan.

Egoeraz baliaurik, hona hemen galdera batzuk: zergatik aurkakotasunak bilatu, zergatik bate bestearen aurrean, eta ez bata bestearen ondoan?; zergatik bikoteak, eta ez hirukote, laukote “eta abarkoteak”? Behar bada, haustura ordez osaera aberatsagoa izan liteke. Hauexek galderak besterik ez dira.

Gaiari berriro heltzen, Teutenen esaldi zehatz bat berreskuratu nahi dugu. Erritotetan, oro har eta era globalean hitz eginez, maskara gizonari dagokio, ez emakumeari (salbuespen batzuk, gutxi hala ere, ematen dira), nahiz eta irudikatutakoak emezkoren ezaugarriak erakutsi, ezaugarri batzuk ala izaki zeharo emakumezkoa izan. Maskek parte hartzen duten errito kanpotarrak behatzen baditugu, baieztapen hau onartu behar dela aitortzen dugu. Han hemenka kultur herritarretan maskaradunak gizonak izan ohi dira. Beste egoera desberdinak dira korte, antzerki, balet edo hiri nagusietako jaietan aurkitzen ditugunak. Edozein modutan, azken hauek ez dira gure ikerketarako esparruak orain. Lehen esan dugun bezala, euskal maskara herritarrak aztergaitzat hartzen ditugu, ez beste edozein motatakoak.

Euskal Herrian gauza bera gertatzen da. Udako maskaradunak gizonak dira, eta inoiz emakume maskaradunak egon diren ezin dugu baieztatu, ez eta ere aipatu hipotesi bezala, inongo daturik hara ez baikaitu eramaten.

Neguko maskarek mutil edo gizonen aurpegjak estali dituzte mende honen hirugarren hamarkada arte. Landa-lanak baieztatu digun bezala, XX. mendean emakume maskaraduna aurkitu badugu nonbait, honek ez ditu maskara herritarrak erabili, dendetan erositakoak baizik, kartoizkoak normalki. Hala eta guztiz ere, inauterien berpizkundetik aurrera, erritotetan emakume maskaradunek ere parte hartu eta hartzen dute.

Aldi berean, Euskal Herriko maskaradunek erritorako janzkeran emakumezko elementuak gehitu badituzten ere, papera gizonaren eskuetan gelditu da. He-

men ere ikur aspektuak aipagarriak dira, nolabait egoera hau ulergarriago bihurtzeko asmoz, baina horrez gain erritoen eitearen errealitatea hauxe da.

1.2. Maskara, urtaroa eta jai

Landa-lanaren ondorioek lagunduta, Euskal Herriko inguru tradizioaletan maskarak bi ospakizun edota errito motetan suertatu dira. Alde batera, maskak neguko jaietara indarki lotuta egon direla, eta oraingoz badaudela, erraz beha daiteke. Batez ere inauteriak direla eta, objektu hauek eite desberdinez gauzatu dira. Bestera, ordea, udako jai ezberdinen eskutik kaleratu dira. Lehenengo kasuaz informazio eta eredu askok iraindu digute. Bigarrenaz, berriz, ez hainbeste. Hala eta guztiz ere, udako maskaren iragan oparoaz zerbait jakiteko nahian aritzen garenean, artxiboek hitza badute.

Aurreko guztia dela eta, nolabait Euskal Herriko maskarak sailkatzeko grina edo beharra badugu, urtarorekin arabera egin dezakegu. Hots!, urtarorekiko harremanetan esan nahi dugu, hau da, urtaroei dagozkien erritok da gakoak.

Horrela, alde batetik neguko maskarak izan ditzakegu, talde aberatsa osatuz. Bestetik, udako maskarak aurkitzen ditugu. Azken multzo hau gaur egun ez da hain handia, baina iragan emankorra izan duela erraz baieztagarria da.

Beste aldetik, bigarren kasuan sailkapena jai desberdinen arabera azal dezakegu. Horrela, Gorpuzti jaietako maskarak aurki ditzakegu, edota herriko zaindarien jaietakoak. Beraz, sailkapen-bide honen giltza urtaro eta erritoren arabera finkatzen da.

Aitzitik, hau ez da bide edo aukera bakarria maskaren sailkapena xedea delarik. Eiteek beste atea zabaltzen digute. Hemen, esate baterako, objektuaren ezaugarri formalak behatzen ditugu. Hau dela eta, maskara antropomorfitikoa daudela ikusten dugu, edo zoomorfitikoa, edota zehaztugabeak. Kasu hauetan, gainera, azpimultzoak definitzen dira, abstrakzio mailaren arabera.

Hirugarren bidea materialetan oinarri daiteke: larruzko maskarak, oihalezkoak, kartoizkoak, egurrezkoak, metalezkoak ...

Zalantzarik gabe, beste aukerak badaude. Irizpide geografikoa zergatik ez izan kontutan, alegia?

Gure lana antolatzeko urtaroak eta hauei dagozkien erritok/jaietara baliatuko gara. Horrela, maskarak neguko eta udako talde nagusietan bereiziko ditugu. Hauxe izango da gure abiapuntua. Hortik aurrera, beste irizpideak ere kontutan izango ditugu. Alegia, erritoren kokapen geografikoa tresna erabilgarria izango da.

Edozein kasutan, metodologia ideia nagusi batek zuzendu du. Nola edo hala, maskara kontestualizatuta adierazi behar genuen. Bakarrik horrela bere funtsa eta adieraren zerbait uler genezakeela ohartu genuen hasieratik. Horrexegatik, edozein maskari hurbiltzen gatazkiarekin, erritok bertan kokatu eta sustraitzen dugu.

2. MASKARAK NEGUKO JAIETAN

2.1. Inauterietako maskarak

Neguko jaien artean bat nagusienetarikoa da: inauteria. Euskaldunontzat jai gehienak era anitzean adieraziak izan dira. Gainera, joera honek hizkuntza motarekin ez du zerikusi handia, euskaraz zein erdaraz hitz egiten jazotzen baita. Beraz, hurrengo orrietan *inauteriak*, *ioteak*, *aratusteak*, *los carnavales* eta esamolde aberats luzea hartuko dugu helburu. Jai eredu anitza eta konplexua da, zalantzarik gabe. Erritoak aldakorrek dira leku batzuetatik bestera. Ikerlari batzuk inauterien erritoak sailkatzen saiatu dira. Horretarako, errito ereduak asmatu dituzte. Bidean aukera asko alderatuta gelditu zaizkie, hain jai aberatsak direla eta. Beren eiteek bukaezinak dirudite, eta sinplifikatzeak ez du errealitate konplexuaren ideia ongi adierazte.

Euskal Herrian zein kanpoaldean, inauteri jaiak eta mozorroek binomioa hausteina osatu dute. Mozorroa funtsezko osagaia da neguko jai hauetan. Mozorroa bera oso elementu konplexua da. Mozorroaren janzkeran objektu desberdinak kokatzen dira, eta horien artean bata argitasunez islatzen da: maskara.

Inauterien garaian, Euskal Herriko herri eta hiri guztietan mozorrodunek kaleak betetzen zituzten. Janzkeraren aldaketa bereziak pertsonaren izaerari bide berriak eskaintzen zizkion. Joera ez-ohikoak garatzeko gauza bihurtzen zen mozorroa. Neguko prozesu horietan maskarak garrantzi izugarria bereganatzen zuen. Maskara atzetik anonimatuak beste motatako askatasunak ematen ditu.

Gure inguruan, maskara oinarrizko tresna izan da inauterietan. Herri gehien-gehienetan maskara eta bere baliabideen ustiapena oso handia izan da. Leku askotan, eta XX. mendearen egoeraz jaso daiteken informazioaren arabera, maskarak erosi egin dira, kartoizkoak gehienetan, herritik kanpoan eginak. Hau dela eta, mota guztietako maskarak ikusi dira Euskal Herriko inauterietan. *Antifaz* deiturikoak erabilienetarikoak izan dira. Maskara hauek ez dute aztarna sendoa utzi folklorean. Aldakorrek, urte batetik bestera trukatu egin dira, mozorratuaren gustuaren menpe.

Baina, leku batzuetan urtez urte maskara-eite berdina errepikatzen zen, edo hobeki, errepikatu behar zen. Elementu honen erabileraren aspektu guztiak tradizioan oinarrituta agertzen zaizkigu gaur egun oraingoz. Maskara horiek dira gure helburua. Haien azterketak testuinguruaren behaketa eskatzen du, karatula guzti hauen kokapen zehatzak finkatu nahi baditugu. Orduan, objektu hauen izate eta ezaugarriak hobeto ulertzeko bidean izango garelakoan gaude.

Hala ere, maskara tresna erabilienetariko izan den arren, ez da bakarria izan ardura honetan. Leku batean baino gehiagotan, aukeraturiko bidea aurpegia margotzea izan da: Arabako Arrizalan, alegia. Kuantitatiboki, bigarren aukera hau pobregoa izan da, inongo zalantzarik gabe. Gainera Euskal Herriko herrietako inauterietan margotze horrek ez du eite-eskaintza handirik egin: gauzarik simple eta normalena beltzez margotzea izan da. Edozein kasutan, horra hor zenbait lekutako joera zehatz hau.

Gure inguruan horrelako izenak jaso ditugu maskara aipatzearren:

- a) Euskaraz: *maskara, maska, karatola, karatula, karatulia, karatulea*.
- b) Gazteleraz: *la máscara, la careta, la carátula, la escarátula* eta antzeko beste batzuk.

Ziuraski, beste batzuk nonbait egongo dira, guk jasotzeko aukerarik izan ez dugunak. Kasu guztietatik, hitzaren jatorria ezin da kokatu euskarari, hizkuntza erromantzeetan baizik, edota edozein kasutan, latineraz beharrezkoa bada. Ez da gauza berdina gertatzen mozorrotuaren adierazpenaz. Orain bai, hizkuntzaren arabera aukera ugari aurkitzen dugu. Horien artean, eremu euskaraduneko jatorrizko hitz euskaldunak aurkitzen ditugu, erakusketa zabalean gainera.

Hemen, arazo serio bat planteatzen zaigu. Hiztegi batzuetara jotzen badugu, mozorroei dagozkien adierazpenak maskarari garraiatzen zaizkio. Nolabait, osotasunaren izendapena multzoaren objektu esanguratsuenari ematen zaio⁴. Itzulpenaren irizpideetan arazo larriak daude, gaztelerarenak erabili baitira, dirudienez. Mozorroarenak eta maskararenak nahastu dira. Guk garaturiko lan etnografikoak zalantzak argitu dizkigu. Euskarak ez ditu nahasten bi adigai hauek, eta bakoitzari bere erak ezartzen dizkio.

Laster ikusiko dugun bezala, *maskara, karatula* eta antzeko hitzen eratorpenak mozorrotuak izendatzeko izenak eman ditu. Hau, batez ere eremu euskaragabean gertatu da, eta leku batzuetan bakarrik. Handik ere bai, baina ziurtasunez eremu geografiko euskaraduneko, kontzeptu bakoitzari aukera bera eman zaio. Hona hemen adibide batzuk, guk landa-lanean jasotakoak, aurreko guztia sendotzeko nahian ekarritako eta taula erara aurkeztutakoak:

HERRIA	MOZORRADUNAK	MASKARA
Unanua	Mamoxarrok	Karatola
Errazu	Damak	Maskara
Bakaikoa	Kamarroak	Karatulia
Auritz	Muxixarkok	Maskara
Ezpeleta	Piltzarrak	Maska
Legutio	Porreruek	Karatule
Bikuña	Porreros	Escaratula
Kanpezu	Cachirulos	Careta

4. Adibide gisa, P. Mugicaren *Diccionario Castellano – Vasco* delakoa erabiliko dugu. 1.165 orrialdetan MASCARAsarrera aurkitzen dugu: “1. *Disfraz, careta, antifaz*”. Hiruak parekatzen dira. Izan ere, gaztelerak joera zehatz hau erakusten du, eta euskaraz itzultzean irizpide berdinari jarraitu zaio. Baina, horixe izan al da euskaldunon joera, gutxienez euskaraz hitz egitean?. Hau dela eta, Mugicak honelako hitzak elkarrekin biltzen ditu: “*arpegi-estalkia, arpegi-ordeko BG, erraba B, kamarro G, karamarro, B, karatoxa BN, karatula B, katamalo BG, koko B, kokomarro, kuku BN, kukumarro B, marmiollo B, mamu BL, marmo B, marrao B, marrau B, momotxorro G, mosuxarko BN, moxolo AN, mozorro (c), ...*”. Zerrenda luzeagoa da. Hemen bi adigai nahasten dira, lan etnografikoak adierazi digun bezala: maskara (aurpegi-estalkia) eta gorputz osoko mozorroa.

Hau izan da, zalantzarik gabe, jarrera nagusia Euskal Herria osoan. Mozorroak bere izena du, eta karatulak berea. Esan bezala, salbuespenak ematen dira, hau da, bi adierazpen artean fluxu zuzena zabaltzen dutenak, eta batez ere eremu euskara-gabeen sortu direnak. Horrelakoetan, gainera, aurpegiko tresnak ez du zuzenki mozorradura izendatzen, horren eratorriak baizik.

2.2. Maskara eta maskaraduna

Euskal Herriko azalean neguko jaietako mozorrotuek izen ezberdinak hartu dituzte. Hona hemen horietariko batzuk eta dagozkien alegiazko herriren bat, beste askoren artean: *marroak* (Gernika), *marmoak* (Lekeitio), *kokoxak* (Markina), *kokomarroak* (Elorrio), *kukumarroak* (Bergara, Antzuola), *txantxoak* (Abalziketa, Berrobi, Elduaian), *los porrerros* (Arabako San Milian, Zalduondo, Egiraz, Egino), *los cachis* (Azatzeta, Onraitia, Erroitegi), *los zarramoqueros* (Pangua), *los mascaretas* (Bastida), *mozorroak* (Arantza, Arizkun, Amaiur, Errazu), *zomorruak* (Arano, Ziordia), *ñañarroak* (Arribe, Atailo, Betelu), *txatarrak* (Arbizu), *txatuak* (Latasa), *txatxoak* (Lantze), *txatxuak* (Etxaleku, Eguarats), *muzizarkok* (Auritz, Auritz Berri), *los zipoteros* (Burgi, Bidangotze), eta oraingoz beste aukera batzuk badaude.

Adibide bakoitzean herri-izen batzuk aipatu ditugu. Adierazpen bakoitzari dagokion herri zerrenda luzea izaten da kasu gehienetan. Izen horiek guztiak mapan kokatzen baditugu, lortzen den emaitzak lurraldeetako hizkerarekiko zerikusi handia baduela bistan gelditzen da. Izen batzuk haran batean arruntak dira, eta ez ditugu beste inon aurkituko berriro. Beste batzuek, berriz, beren mugak eremu zabalagoan finkatzen dituzte, haran-esparrua gaingiditzen.

Aipaturiko guztietan, maskara adierazteko izena eta mozorratuaren izen generikoen arteko inolako harremana dagoenik ez dirudi. Lehen esan dugun bezala, Euskal Herrian izen arruntenak maskara izendatzeko, guk jaso dugun informazioaren arabera behintzat, hauexek dira: *karatulia*, *karatula*, *maskara*, *la carátula*, *la escarátula*, *la careta*, *la máscara*. Nafarroako Sunbillan, aurpegia maskararen bidez estaltzeko ekintza *maskaratu* aditzaren bitartez ezagutzen da.

Euskararen eremu gehienez aditza bera aurkitu dugu. Gazteleraz, ordea, horrelakoak entzun ditugu: *mascararse*, *enmascararse*, *escaratularse*, *encaratularse*.

Nahita, zerrendatik kanpo izen batzuk utzi ditugu, beste zerrenda berezia osatzeko asmoz. Ondoko ereduetan maskararen izatea edo erabilera islatzen da. Leku askotan, inauterietan maskarak erabilia, tresna hauek mozorrotutako pertsonari izena jarri diote. Azalpen argiagoa egitekotan, hona hemen herriak, maskararen izenak eta mozorrotuen izendapenak elkartzen dituen taula, non azken bien arteko harreman estu eta zuzena begi-bistan geldituko zaigun testu luzean jardun gabe:

HERRIA	LURRALDEA	MASKARA	MOZORRODUNA
Bastida	Araba	La máscara	Los mascaretas
Laudio	Araba	Maskara	Maskaretak
Buradon Gatzaga	Araba	La careta	Los caretas
Lekeitio	Bizkaia	Maskarea	Maskariak
Aoiz	Nafarroa	La máscara	Los mascaritas
Arellano	Nafarroa	La escarátula	Los escaratuleros
Azkona	Nafarroa	La máscara o careta	Los máscaras o caretas
Biotzari	Nafarroa	La carátula	Los carátulas
Deikaztelu	Nafarroa	La escarátula	Los escaratuleros
Gares	Nafarroa	La máscara	Los mascaritas
Mañeru	Nafarroa	La carátula	Los carátulas
Muniain	Nafarroa	La escarátula	Los escaratuleros
Olazti	Nafarroa	Karatula	Karatulak
Olite	Nafarroa	La careta	Los caretas
Urdax	Nafarroa	Maskara	Maskarak

Azaldutako harremanak ez du bereganatzen eremu geografiko berezkoa. Nolabait esateko, izendapen hauei ez dagokie haran zehatza, edo lurralde konkretua, ez eta eremu berariazkoa. Datuak ikusita, kasu gehienak Nafarroan ematen dira, guk dakigunaren arabera. Araban ere batzuk ezagutzen dira. Bat Bizkaian aurkitu dugu.

Orokorki, lurralde ez-euskaradunean kokatzen dira gehienak, baina esparru euskaradunean ere badaude batzuk. Kuantitatiboki, azken hauek aurrekoak baino askoz gutxiago dira.

Edozein kasutan, egoera zehatz honetan aurkitzen diren herriak sakabanatuta daude, multzo geografiko homogoneoa harrapatu gabe, hau da, horrelako lotura linguistikoak erakusten dituzten herrien artean beste leku asko badaude, non antzekorik ez den gertatzen.

Hizkuntzari buruzko eztabaidetan arituz, lehen esan bezala, batez ere eremu euskara gabean horrelako fluxu linguistikoa ematen da. Badirudi, beraz, maskara adierazteko euskaraz gorde diren hitzak erdaldunak direla, "erdaldun" hitzari "atzeritar" adiera ezarrita, jakina. Hauxe oso garbi geratzen da mozorrotua adierazteko euskal hitzak behatzen ditugunean. Maskara izendatzeko hitz aukera gutxi erabiltzen da, eta horien aldaerak ere ez dira ugariak. Beste aldetik, euskaraz mozorrotuaz hitz egiteko tokiko izen asko erabilgarriak direla ikusi dugu aurreko zerrendan, bakoitzak bere esparruari lotuta, oro har.

Hitz erdaldun horien inguruan, batez ere alde ez-euskaradunetan, fluxua sortu da. Mozorrotuaren izendapena maskararenaren eratorria da, eta ez alde-rantziz.

Hala eta guztiz ere, hau azpimarratu nahi genuen: maskararen erabilera dela eta, leku askotan tresnak berak mozorroduna izendatu du, batzuetan eratorpenaren bitartez, bestetan ez. Multzoaren zatiak multzo osoa izendatu du. Baina, alderantziz ez da hain normalki gertatu, hau da, mozorroa adierazteko hitzak ez du maskara izendatu euskaraz.

Hemendik aurrera, maskak eta erritoak parekotasunean behatuko ditugu, aurreko guztia kontutan izanik.

2.3. Markina

Bizkaiko nekazal herria izan den hau, egun industrializazioak zurgatu du. Lantegiek biztanleen lana zuzentzen dute azken hamarkadetan. Aitzitik, inguruetan baserriak, zelaiak eta soroak ugariak dira oraingoz.

Gure ikerketaren helburuak maskarak direla eta, Markinako inauteriak aztergai bihurtzen zaizkigu orain, herriko beste jai eta erritoak baztertuz.

Markinako *karnabalak* aldatu egin dira azken urteotan. Itxurazko osagaiak behatzen baditugu, batez ere egutegian aldaketa batzuk nabariak dira. Oinarritzko erreferentzia zuzena bezala, guda baino lehenagoko inauteriaz mintzatuko gara hurrengo pasarteetan.

2.3.1. Markinako mozorrotuak

Orokorki esanda, Markinako mozorrotuak *kokoxak* deiturikoak ziren. Egiaren arabera, edozer gauza egokia zen gorputza estaltzeko: etxeke maindire, ohazal, gortina zaharrak. Besteetan, mozorro landuagoak janzten zituzten markinatza-
rrek, erositakoak, etxean bertan egindakoak josten eta josten, edota nonbait alokatutakoak ere, azken hauek oso apainduak izaten direnak, jakina. Horrela, lagunak koadriletan elkartzen ziren, eta han hemenka kaleetatik elkarrekin zirikatzen aritzen ziren, edo haurren atzetik korrika hasten ziren.

Talde hauen guztien artean, nolabait esateko, berezia zen beste bat agertzen zen urtero. Talde horretako gizonak *artza* gidatu eta erakusten zuten herriko kaleetatik. Hartz hau maskaraduna zen. Bere mozorroa egiteko ardi larruak erabiltzen ziren. Horrela, azpiko galtza eta alkandora gainetik larruez egindako pieza bakarreko jantzi lasa janzten zuen. Burua zeharo estaltzeko nahian, material berdinez prestatutako hartz buru antzeko maskara jartzen zuen. Urteen arabera, hartz itxurazko mozorro eta maskara honetan aldaerak nabaritzen dira. Batzuetan, xalogoia izan zitekeen, eta orduan larruzko tunika edo atorra erraldoi bezalakoa hedatzen zen. Besteetan, ordea, oso landua, izterrak, gorputza, besoak eta burua oso ongi definituak eta, gainera, handiak, lasak.

Halaber, azken urteotan ikus daitekeen buruko hartz maskara honetan, muturra oso zehazki eraikita dago, handia, eta belarriak ere nabariak dira, zerbait

aipatzearren. Begiak, ordea, ez zaizkio nabari. Pertsonaiaren ikaragarritasuna eta hartz ezaugarriak oso adierazgarriak dira.

Iraganean, oraintsu bezala ere, taldeko bat hartzaren zaindaria zen. inauterietarako edozein modutan jantzita, kateaz piztia zeraman kaleetatik, lepotik lotuta, edota, azken urteotan bezala, gerritik helduta. Lagunarte berean beste lagun mozorrotuak elkartzen ziren, eta parodietan aritzen ziren: panderoa joaz hartza dantzarazten zuten, edo soinu ulertezinez asmatu-rik hizkuntzaz hitz egiten zioten, hartza askatu eta umeak harrapatzera abiatzen zen korrika, maskaradunek berriro heldu behar zuten ahal zuten moduan, eta abar luzea.

Horretaz gain, *zaragi dantza* deituriko koreografia dantzari taldearen menpe gelditzen zen. Mutil guztiak zuriz jantzita agertzen ziren. Gerriko, txapela eta zinta gorridunak espartinetan eta galtzaren luzeran erakusten zituzten janzkera osatuz. Bakoitzak bi makila motz erabiltzen zituen eskuetan koreografia garatzeko. Beste batek, era berean jantzita, zagi handi eta puztuta sorbalda gainean garraiatzen zuen. Makilak elkar jo behar zituzten, koreografiaren arabera, eta baita ere zagi gainean makilakada ederrak eman behar zituzten, dantzak berak agintzen zuen uneetan.

Talde hau ere kalez kale mugitzen zen, bere dantza leku askotan erakusteko: tabernen aurrean, enparantzan, kaleen arteko ertzetan.

2.3.2. Jaiaren garapena

Berez, inauteriak, aurreko ostegunean hasten ziren, *txitxiburduntzi egune* delakoan. Egun hartan lagun koadrilek askaria egiten zuten inguruko zelaietan.

Igande goizean, *domekan karnabal egunen*, gazte mozorrotuak kaleratzen ziren, txistularien atzetik kalejiran. Elkarrekin bazkaltzen zuten. Arratsaldean, beste kalejira antolatzen zen, eta beranduago oraingo, erromeria trikitixak zuzenduta.

Astlehena, *astelen karnabal egune*, egun garrantzitsuagoa zen. Gazteez gain, nahi zuen guztiak mozorrotzen ziren eta kalera atera. Eguerdialdean hartzaren lagunarteak bere agerraldia egiten zuen, eta dantzariak ere bai.

Asteartea, *martisen karnabal egune* edota *antzar egune*, egunik garrantzitsuenaren zen. *Kokoxak* berriko kaleratzen ziren, mozorrotuta eta deabrukerietan aritzeko asmotan musikarien laguntzaz. Arratsaldean, Amore kalean soka baten bitartez balkoi batetik bestera soka garai eta luze bat lotzen zen, eta handik antzarak lepotik heltzen zituzten. *Antzar jokue* deiturikoan parte hartzen zuten gizonak, inongo jantzi berezirik gabe, zaldiz, mandoz eta astoz agertzen ziren lekuan.

Hegaztiei lepoan olioia edo gantza ematen zitzaie, ariketaren zailtasunak handitzeko. Txistulariek, haien musikaz, jokia zuzentzen zuten. Antzarren lepoak eskuz moztu behar ziren, eta trebeziaz lortzen zuenak bere antzarren jabe bihurtzen zen.

Eginkizun hau amaituta, *aurreskua* ospatzen zen, non herriko neska eta emakumeek ere parte zuzena hartzen zuten.

Lorturiko antzarrez, lagun koadrilak hurrengo igandean elkartzen ziren berriro *antzar jana* egiteko asmotan.

Gaur egun, mozorrotutakoak, hartza, eta dantzariak kaleratzen dira. Antzar jokoak ere ospatzen da. Baina, egitarau osoa igandean garatzen da, jendeak astelehenean lanera joan behar duelako.

2.3.3. Hartz maskara

Lehen esan dugun bezala, urteen arabera hartza janzkera aldatu da. Urte batzuetan, ardi larruzko atorra edo tunika handia egiten zen, buru gaintetik zintzilikatzen zena, non begietarako bi zulo egiten ziren. Gero, gerri inguruko kateak gerrikoaren lana egiten zuten. Piztiaren ezaugarri morfologikoak ez zeuden ondo definituta.



Markinako hartz-maskara (Bizkaia).

Azken urteotan, hartza janzkera itxura lortuagoa da. Berriro ardi larrua erabiliz, izterrak eta besoak ondo eginak agertzen dira. Eskuak eskularru banean eramaten ditu. Gorputza estaltzeko, tunika lasa erabiltzen da. Azkenez, neurri handiko buruan mutur luze eta zabala agertzen da. Alboetan belarri handiak abailtzen dira. Begien zuloak ile artean ezkutatuak dira. Itxurazko buru honek mozorrotuaren benetako buru osoa estaltzen du. Egia esateko, pertsona osoaren zentimetrorik ez da bistan gelditzen inondik. Lehen bezala, katea gerrian eramaten du egun ere, nahiz eta iraganen askotan lepotik lotu.

Hartz maskara zoomorfoak nahiko ugariak dira Euskal Herriko inauterietan. Laster, antzeko beste batzuk behatuko ditugu.

2.4. Altsasu

Mugimendu handiko bideak gurutzatzen diren lekuan kokatzen da Altsasu, Nafarroan. Iraganean nekazari herria izanik, gaur egun industria oso indarrez garatu da bere udalerrian. Gainera, inguruko herri guztientzat zerbitzu-gunea da.

Bere gainean mendi garaiak sortzen dira: Aizkorri mendikatea alde batetik, Urbasakoak bestetik, Entziako gailur eta pagadiak. Aralar ere ez dago urruti. Abeltzaintza zein nekazaritza ez ziren eskasak izan iraganean herri honetan. Zelai eta soroak leku guztietatik agertzen dira, herritik kanpo.

Epe laburrean industrializatu diren beste leku asko bezala, Altsasuk azken hamarkadetan bere garapen desorekatua nozitu du.

Aurreko kasuetan bezala, maskarak inauterietan eman dira. Hara jo behar dugu orain.

2.4.1. Altsasuko inauteriak

Leku gehienetan bezala, Altsasuko *ioteak* edo *karnabalak*, hau da, inauteriak XX. mendeko gudan amaitu ziren debekuaren menpe. Hala ere, azken urteotan herriko jendea jaia berreskuratzen aritu da. Gure oharrak azaltzearren, iraganera zuzenduko gara. Mozorratuak era desberdinetan ager zitezkeen. Hona hemen bidezko aukera horiek.

Momotxorro deiturikoek oso janzkera interesgarria erakusten zuten. Itxura beldurgarria ematen zuten. Gainera, taldeka ibiltzen ziren, eta bortitzak izaten ziren haien agerrietan herriko kaleetan. Nolabait laburtzearren maskarari buruz hitz egin arte, bobido itxura ikaragarria hartzen zuten, odolez zikindutako beso ez eta atorraz apainduta. Zaldi-ilez aurpegia estaltzen zuten ezagutuak ez izateko. Gainean, ardi larruan josita, joare eta ezkila batzuk jartzen zituzten zarata ateratzeko, edo gerri



Altsasuko momotxorro maskaraduna (Nafarroa).

inguruan lotzen zituzten. Hauek koadriletan azaltzen ziren, eskuetan sarda handiak eramanez. Horrela, jendea zirikatzen zuten.

Beste aldetik, *juantranposo* izenez ezaguturiko beste mutil batzuk agertzen ziren. Hauek, zakuzko oihalez egindako jantziak erabiltzen zituzten, gorputza, besoak eta izterrak ongi definituta, baina oso jantzi lasa izan behar zuen. Horrela, barrutik lastoz betetzen zuten, eta oso pertsonaia lodi eta barregarri bihurtzen ziren. Buruan txapela ez zitzaien falta izaten, eta zapi bat aurpegia estaltzeko, begientzat zuloez hornituta. Besteetan, bakarrik aurpegia ikatzez edo egur erreaz beltzez margotzea nahikoa izaten zen ezegunarena egiteko. Herritik, handik hona ibiltzen ziren, talde txikietan, bikoteka askotan. Beste moztaroen kolpe eta bultzadak jasan behar izaten zituzten eten gabe. *Momotxorroek* harrapatuta, lurretik biraka botatzen zituzten.

Momotxorroen antzaz jantzitako beste bik golde handi bat kaleetatik eramaten zuten, lanetako idiak balira bezala. Beste batek nekazariaren lana egiten zuen ukuiluaz abereak gidatuz. Eta besteak goldea gidatzen zuen atzetik. Azkenez, beste batzuen artean errautsez beteriko ontzi handia eskuetan heltzen zuten. Taldea herri osotik ibiltzen zen, kaleak goldaketan. Bitartean, atzealdekoek errautsa eskukadez aitera eta ondoko jendeari botatzen zioten, ereitearena parodiitzen. Ikusleriak ihesari egiten zion, jakina.

Beste maskaradunak, *mascaritas* deiturikoak, edozein eratako moztar jantziak erakusten zituzten, batzuk oso dotore, besteak oso barregarri edo kaskarrak.

2.4.2. Ospakizuna

Altsasun, jai hauek inauterietako igandean hasten ziren, *carnaval txikito* egunean. Egun horretan herriko haur eta gazteenak moztarrotzen ziren, eta janzkerak erakutsiz kaleetatik ibiltzen ziren egun osoan.

Astehenean ez zegoen ekintza berezirik, eta normalki jendea lanetara zuzentzen zen. Ilunabarrean, koadrilak tabernetan elkartzen ziren, hurrengo eguneko jardueri buruz hitz egiteko eta azken prestaketak egiteko.

Inauterietako asteartea egun nagusia zen, *momotxorroen egune*. Normalki, goizean jendea lanetan aritzen zen, eta eguerdirako etxera itzultzen zen. Bazkaldu ondoren, lehenengo *momotxorroak* plazaratzen ziren, taldeka. Laster, kaleak pertsonaia hauetaz betetzen ziren. Mutil asko izan baino gehiago, oso mugituak, zaratatsu eta bortitzak ziren. Jendea zirikatzen zuten eten gabe beren sarda handiez: neskei jarraitu harrapatzeko asmotan, umeen atzetik korrika abiatu, beste lagunei gurra eman.

Une berean, moztarrotutako beste lagunarteak agertzen ziren, goldea gidatzen, hautsa botatzen, *juantranposo* lodiak handik honantz era baldarrean ibiltzen eta besteen bultzada jasaten, *maskarita* koadrilak, eta abar.

Gau aldera, angelusaren garaian, denek maskarak gainetik kendu behar zituzten eta aurpegia garbi erakutsi, ezagunak izan zitezen. Horrela, koadrila guz-

tiak etxez etxe eskean hasten ziren. Eskuarki, bildutakoa janaria izaten zen: txorizoa, urdaia, arrautzak, txistorra. Diru pixka bat ere bai, ahal bazen nonbait, gero tabernan ardoa erosteko. Bildutako guztiaz, lagunek elkarrekin afaria egiten zuten. *Momotxorroen* jarrera bortitzak unean ere nabariak ziren. Gauzak eskatu baino gehiago, lapurtzea nahiago zuten, etxeetan leihotatik sartuz, ateak zabalduz. Ahal zutena harrapatu eta eraman inori baimena eskatu gabe. Ilunabarretik aurrera herriko enparantzan musika eta dantza egoten zen.

Afariarekin ospakizuna amaitutzat ematen zen, hurrengo igande arte, *domingo piñata* deitzen zena. Berrito lagunak elkartzen ziren, mozorrotu gabe edo mozorro sinpleak jantziz dantzan aritzeko, hurrengo urte arte behin betikoz inauteriak amaitutzat emanda.

2.4.3. Maskarak

Maskarita deiturikoeak askotan zapi bat erabiltzen zuten aurpegia estaltzeko, begientzat zuloak eginda eta buru atzean lotuta, *juantranposoek* egin ohi zuten erara.

Momotxorroen maskara konplexuagoa zen. Aurpegiaren estalkia buruko janzkera osoaren elementu osagarria da. Guda baino lehenagoko garaietan, mutil hauek landetan aritzeko janzkera oinarritzat erabiltzen zuten: galtza gogorrak, urdinak askotan, alkandora koadrodunak, edo mendian eta zelaietan lan egiteko erabiltzen zuten zaharren bat mahukak bilduta, abarkak eta galtzerdiak. Gero, buru gainean saski bat kapela moduan ipini behar da. Bere aurrealdean, *ipuruko* deituriko idi burukoa doa. Hemendik behealdera zaldi-ile luze eta ugaria zintzilikatuz, mozorratuaren bularreraino aurpegi osoa estali nahi da. Beraz, aurpegiko estalkia oso sinplea da baina, era berean, eraginkorra. Gainera, oraingoz gehiago ezkutatzeko, ikatzez aurpegia beltzez margotzen da. Saski alboetatik edo, hobeto, idi ipurukotik bi behi adar luze azaltzen dira.

Saskiaren goialdetik ahari edo ardi larru zabal eta iletsu bat zintzilikatzen da, atzealdera erorita sorbalda osoa estaliz, *narrua*. Larru horretatik joareak lotzen dira, bi gutxienez, oso zaratatsuak.

Alkandora gainean, atorra antzeko maindire zuri eta luzea janzten da. Be-soak bezala, ator hau odolez zikintzen dute.

Esan dugun bezala, minotauro hauek beldurra sortzen zuten herri osoan. Jendea zirikatzen zuten, janaria lapurtu, ahal bazuten gutxienez, eta antzekoak ziren beren bete beharrak Altsasun ilunabar eta gauean.

2.5. Unanua

Nafarroako herrixka hau Beriain mendi azpian kokatzen da, iparraldera begira Ergoiena haranean. Bere inguruetan nekazal soro eta zelaiak zabalitzen dira, baina bere gainean artzainen eremua hasten da, mendiko belardietan.

Unanuako inauterietan, *ioreak*, mutil momorrotu eta maskaradunak herriko kaleetan nagusitzen dira. Horrexegatik, jaia hona ekartzea gure interesekoa da, batez ere erabilitako maskarak ez duelako inongo parekotasunik egungo Euskal Herrian.

2.5.1. Unanuako *ioreak*

Garai hartako erritua ez da formalki oso konplexua Unanuan, eta gainera, beste leku askotan bezala, azken urteotan zenbait ekintza baztertu dira. Mozorrotuei *mamoxarro* edota *momoxarroak* deitzen zaie. Berez, jai hauek herrian inauterietako igandean hasten dira.

Aipaturiko igande arratsaldean *mamoxarro txikiak* kalera abiatzen dira. Hauek mutil gazteak izaten dira, 14-17 urtekoak. Jantzeko, mahuka luzeko kamiseta zuri lodia eta antzeko galtzoin luze zuriak erabiltzen dituzte. Gerri inguruan, gerriko gorria edo beltza, eta honen gainera larruzko gerriko bat zintzarri handi eta ezkiez hornituta lotzen dute, *kaskibilluak* eta *panpaxiak*. Antzeko beste bat ere bular eta sorbaldatik gurutzatuta eraman ohi dute. Gero, buru gainean emakumezkoren zapi zabal bat atzealdean korapilatuta ipintzen dute, eta oinetan abarkak ere iraganean. Orain, edozein oinetako motak balio du, eguraldiaren arabera. Lepoan, emakumezkoren margo desberdinetako zapi zabala lotzen dute. Aurpegian, *karatolak* edo *katolak* deituriko maskarak erabiltzen dituzte, zapiaren laguntzaz buru osoa estaltzen dutenak. Eskuetan makila luze eta mehea eramaten dute, egurra banatzeko haurren artean, *ziorra* deitzen dena. Horrela ibiltzen dira arratsalde osoan, koadriletan han hemenka jendea zirikatzen, gaua arte. Orduan, ilunabarrean etxez etxe eskean aritzen dira, aurpegitik maskara kenduta. Bildutakoaz afaria egiten dute herriko denda-tabernan.



Unanuako mamoxarro maskaradunak, metalezko karatolarekin (Nafarroa).

Astlehenean ez dago ekimen berezirik Unanuan. Astearte arratsaldean *mamoxarro aundiak* plazaratzen dira. Hauek mutil zaharragoak izaten dira, 18 urte-tik gorakoak, nahiz eta azken urteotan ere igandeko gazte batzuk era berdinean mozzorrotuta kaleetatik ikus daitezkeen. Jantzera zeharo berdina da: kamiseta eta galtzontzilo zuri luzeak (askotan pieza batekoak), oinetakoak, gerriko gorria eta zintzarri edo ezkilak, lepoko eta buruko zapiak, eta maskara aurpegian. Hauek erabilitako makilak, *ziorrak*, oso luzeak izaten dira, 2,5 metrokoak edo luzeagoak oraingoz.

Itxura horretaz, taldeka edo bikoteka kaleetatik mugitzen dira. Harrapatutako jendea zirikatzen dute bernetan joka makila luzeez. Gainera, balkoietara iristen dira, edota lehoietatik etxeetan sartu herriko edo kanpoko neskak harrapatzeko nahian. Bahitutako neska besteengana eramaten dute denek musuka ahal izateko.

Hauen inguruan *muttuak* aritzen dira parodietan, hau da, edozein eratan mozzorrotutako jendea.



Unanuako mamoxarroak (Nafarroa).

Arratsalde osoa antzeko lanetan eman ondoren, ilunabarrean *puska biltzean* joaten dira herriko etxez etxe, janaria edota dirua jasoz han hemenka. Baina, horretarako *karatola* aurpegitik kendu behar dute. Era berean, *ziorrak* nonbait lagatzen dituzte. Mozzorrotutako batek eskuan saskia darama, non bil-dutakoa zaintzen duen. Gauean, jasotakoaz herriko tabernan afaritara jotzen dute.

2.5.2. Unanuako maskara

Idatzi dugun bezala, Nafarroako herri honetako maskarak *karatola* edo *kato-la* izenak jasotzen ditu. Gaur egun hauen antzekorik Euskal herrian ez dagoela aitortu ere egin dugu aurretik. Unanuako maskarak metalezkoak dira, burdinazkoak hain zuzen ere, eta gaur egun benetan zaharrak. Aldi berean, gordetzen diren guztiak desberdinak dira.

Itxuraz, obalatuak dira, nolabait aurpegiaren mugimendua jarraitu nahian. Begientzat bi zulo eliptiko edo borobil erakusten dituzte, eta beste bat ahoarentzat. Zulo hauek txikiak izaten dira. Gainera, sudurra estaltzeko itxurazko burdina egitura dute, goialdean estuagoki, eta azpi aldera zabaltzen joaten dira sudurra era egokian itxuratzeko.

Ez gaur egun, baina bai iraganean, maskara hauek guztiek adarrak zeramatzaten, bi adar bakoitzak, nahiko txikiak. Gainera, denek ere bizarra zeramaten zintzilik, kokospeko luzea. Orain, azken bi zehaztasun hauek galdu dira. Bekainak, kasu batzuetan, margoaren bidez definituta ager daitezke, baina besteetan erliebean daude, burdina-xaflaren atzealdetik jo ondoren. Era berean, bibotea margotuta ager daiteke. Esaten ari gareen bezala, maskarak margotuta daude, nahiz eta kasu gehienetan margoa askatu eta hondatuta egon denboraren eraginaz. Bekainez gain, begiak, ahoa edota masailak margoaz ingura daitezke. Neurtutako eredu baten luzera 27 zentimetrokoa da, eta zabalera 20 cm.

Burua zapiaren bitartez zeharo estalita gelditzen da. Horretarako, emakumezkoren zapi handia behar da. Hiruki moduan antolatzen da, eta buru gainean kokatzen dute. Lepoa inguratu ondoren, atzealdean bi muturrak lotzen dira korapilo batez. Gauzak horrela, bakarrik aurpegiaren obaltoa bistan geratzen da. Azken hau maskararen bidez estaltzen da zeharo. Lepoaren ertza maskararen albo gainetik agertzen da. Orduan, ondorioz, burua desagertzen da eta horren ordeaz aurpegi metaliko ilunek tentsio eta mesfidantza sortzen dute haur eta jendearen artean; handiagoa oraingoz makila luzea airean mugitzen ikusten delarik.

2.6. Leitza

Nafarroako herri hau Basaburuko handi eta nagusia da. Lurralde menditsu horretan, biztanleen lanbidea nekazaritza eta abeltzaintzan datza. Bere neguko jaietan maskaradunak kalean agertzen ziren, inauterietan hain zuzen ere, *iotegik*.

Jai hauek debekatu zituztenean, herrian jarraitzeko asmoa zegoen eta, izena aldatzea erabaki zen. Ordunez geroztik, *pesta txikiak* deitu dira, azken hamarkadetan berriro jatorrizko izena bereganatu duten arte. Orduan, etena ez zela egon esan daiteke, gutxienez eten luzea. Horrek ez du esan nahi azken aldian jaiaren elementuak ez direnik aldatu, edo gauza asko ez eta desagertu ere.

2.6.1. Leitzako inauteriak

Zomorratuta agertzen zen jendea, mutilak normalki, *atsoak* ziren. Hauen janzkeran edozer jantzi zahar egokia izan zitekeen. Batez ere, etxeko errezel eta maindire zaharrak erabiltzen ziren gorputza estaltzeko. Margo askotakoak baziren, orduan eta hobeto. Buru gainean, *sonbrero* deituriko izugarritzko kapela konikoa ipintzen zuten.

Aurpegia estaltzeko zapi zuloduna erabiltzen zuten, buru atzealdean lotuta. Aurpegiko zapi zuri horretan, beste margotakoek ere balio zuten, begi eta ahoarentzat zuloak egiten ziren. Hau zen herriko jendearen maskara jai honetan.

Batzuk ere ardi larruz janzten ziren, alkandora eta galtza gainera jarrita. Gero, ongi lotuta ezkilak eta zintzarriak kokatze zituzten gerri inguruan, zarata handia egiteko asmoz. Zintzarriak jende gehienak erabiltzen zituen egun hauetan beren mozorrotetan.

Kapelari buruz, XX. mendeaz informazio zehatza lortu dugu: Martin Aranburuk egiten zituen, eta herritarrei saldu ere bai. Mota desberdinekoak bazeuden. Guda baino lehen, oihala erabiliz egiten zituen, baina azken urte hauetan batez ere paperezkoak prestatu ditu. Segaralien lastozko kapela oinarritzat hartuta, kartoizko hegala handia jartzen dio. Gero, burdin hariak armazoi konikoa kapela gainean ezarri behar da. Armazoiak oihalez estali, eta bere inguruan margotako paperak eta girmaldak elkartzen dizkio. Gainera, saizko luma handiak jartzen zaizkio egiturari. Hemendik aurrera, aldaerak badaude. Horrela, urtxintxa larrua erabiltzea kapela hornitzeko horietariko bat da, edota kapela inguratuz burdinazko espirala, paperez eta girmaldez ondo apainduta, eta abar.

2.6.2. Inauterietako egitaraua

Lehen, Leitzako *iotegik* garizuma hasten den aurreko igandean martxan jartzen ziren, eta asteartean bukatu. Gaur egun, San Sebastian eguna igarota eta hurrengo asteburuko jaiak izaten dira normalki. Guda baino lehen, gauzak horrela gertatzen ziren.

Leitzako auzo guztietatik jende *zomorrotua* herri barnera etortzen zen. Astoak eta zaldiak mozorrotzea ez zen batere arraroa egun hauetan. Batzuk, *zangoak* egin, hanketan lotu, eta kaleetatik ibiltzen ziren, bi metrotako zutabe horien gainetik hona eta hara oreka zaintzen. Mozorrotuek zerri maskuriak eskuetan zera-matzaten, haurrak jotzeko.

Atsoen atzean haur zirrikariak aritzen ziren, horrelako esaldiak botatzen: “*Atsoa, atsoa, atsoa, ...i*”, edota “*Atso, atso, txerri baño faltsuagoi*”. Atsoen eginbehar bat haurrak harrapatu eta maskuriz jotzea zen.

Astelehen eta astearte goizetan *mutil kuadrillek* inguruko baserrietatik eskean aritzen ziren, txistu edo akordeoiaren laguntzaz. Horretarako, gazteek atorra beltza, zapi zuri edo urdina eta txapela janzten zituzten. Lan honetan, txorizoa,

arrautzak, gazta eta antzeko jakiak biltzen zituzten. Hemendik hara, ordu-biak arte ez ziren herri barnera itzultzen, non jasotako guztiaz bazkaritara jotzen zuten.

Arratsaldean, herriko enparantzan musika eta *dantza suelta* ez zegoen inoiz faltan. Iluntzean otoiz ordua iristen zen, *amezkilla*. Orduan, jendeak jantzi mozo-roak kendu behar zituen.

2.6.3. Maskarak Leitzan

Lehen azaldu dugun bezain sinplea da Leitzako atsoek jantzitako maskara. Berez, oihal bat da, zuria zein beste margokoa, baina dakigunez oihal zuriak erabilgarrienak izan ziren mende honen hasieran. Aurrealdean, begientzat bi zulo egiten ziren, eta ahoarentzat beste bat. Gero, oihal hau buru atzealdean lotzen zen, zapiaren lau muturrak helduz.



Oihalezko maskara zulodunak Leitzan (Nafarroa).

Oihal puskak nahikoa handia izan behar zuen, gutxienez buru osoa estaltzeko neurrikoa. Izan ere, aurpegia zeharo ezkutatua eraman behar zen.

2.7. Arizkun

Baztango herri honetan harrizko etxe ederrak nagusitzen dira leku guztietatik. Gainera, lekaike klarisen komentu ederra dauka elizatik hurbil. Herria txikia da, zelai eta soroz inguratuta. Nekazal herria da, baina abeltzaintza ez da eskasa oraingo. Elizondotik hurbil dago, eta azken urteotan gazteek haraneko hiri nagusian lana bilatu dute askotan.

Arizkungo maskaradunak inauterietan kaleratzen dira, *iñautek* deituriko jaie-tan. Hemen ere beste pitzia antzekoaren mozorro eta maskara agertzen zaizkigu.

Herriak auzo bat dauka, Bozate deritzana. Beste gauza batzuen artean, he-rixxka hori ere inauterietan famatua zen Arizkunen, laster ikusiko dugun bezala.

2.7.1. Arizkungo inauteriak

Jai horietan parte hartzen duten mutilak, era anarkikoaz jantzita, *mozorroak* dira. Horretarako, batez ere etxeko gortina zaharrak, ohazal, lastozko kapelak, zintzarri eta joareak erabiltzen dituzte. Iraganearan aurpegian oihalezko estalkia jartzen zuten, maskara moduan. Egun, dendetan erositako gomazko maskarak egoki bihurtu dira. Emakumezkoen jantzitako mutilak ez dira arraroak.

Pertsonaia guzti hauen artean, bata nagusitzen da, *artza*. Bere mozorroa egj-teko, ile luzezko ahari larruak erabiltzen dira. Zazpi edo zortzi inguru behar dira. Gorputz osoa ezkutatzeko bere inauterietako janzkera azpian. Burua ere estali-ta darama larruaz. Hartzaren papera betetzen duena mutil handi eta sendo bat izaten da, bere lanak horrela agintzen duelako.

Beste mozorrotutakoren batek hartza kateaz lepotik helduta eramaten du. Eskuan, makila luze lagungarria hartzen du pitzia menperatzeko nahian, Arizkun-go hartza benetan bortitza izan ohi delako.



Arizkungo hartzaren maskara (Nafarroa).

Gainera, egun batean *Sagar dantza* deituriko elementu musikal koreografikoa lau mutilek garatzen dute. Hauek zuriz janzten dute: galtza eta alkandora zuriak, espartin zuriak zinta gorridunak, gerriko gorria bi mutur zintzilikatuez, eta buruan kapela koniko garai eta ederra, koloretako oihal banda desberdinez oso apaindua. Mutil hauek *damuinausiek* eta beren *lagunek* dira, hau da, alkateak izendatzen dituen lau *mayordomo*, urteko *iñautek* eta *herriko bestak* antolatzen.

2.7.2. Inauterietako egitaraua

Inauteriak hasi baino hiru edo lau igande lehenago mozorroak plazaratzen dira, eta herriko kaleetatik builaka aritzen dira herriko biztanleak zirikatzeko. Gero, inauteriak hiru egunetan ospatzen dira: igande, astelehen eta asteartean.

Igande goizean *damuinausiak*, hauen lagunak eta mutil koadrila herriko etxez etxe joaten dira *puska biltzean*, musikaren laguntzaz. Normalki, bildutako jakiak honelakoak izaten dira: arrautzak, urdaia, lukainka, txorizoa, eta gaur egun dirua batez ere. Ibilaldi honetarako ez dira mozorrotzen. Atorra beltzez jantzita joaten dira, txistua edo akordeoiaren laguntzaz.

Gero, arratsaldean edozein modutan mozorrotuta kalez kale aritzen dira, umeak jarraitzen harrapatu nahian. Eskuetan maskuri edo erratza erakusten dute, egurra alaiki banatzeko haur eta nesken artean. Non harrapatuta, bertan eman. Baina, segurtasun eremua badago herrian, elizako aterpea hain zuzen ere. Jendea han ezkututzen delarik, mozorroak ezin dira muga gainditu eta barruan sartu. Askotan, barrukoak kaleetara atera ere ez.

Asteartean arizkundarrek berriro jaiei eusten diete. Goizean mozorroak agertzen dira, herritik bira zabala emateko asmotan musikariaren atzetik. Egur banaketa errepikatzen da. Gainera, goiz horretan hartz ikaragarri eta erraldoi horrek kaleak betetzen ditu bere nortasun bortitzaz. Askotan, piztiak bere jabearengandik ihes egitea lortzen du, eta orduan herriko jendea desagertzen da kaleetatik, mozorroak ere bai. Norbait harrapatuta, bere etorkizuna kolokan egoten da: besarkada itogarriak, ostiko eta mota guztietako kolpeak, lasterketak ... Hau da inauterietako bere egitaraua.

Puska biltzeak jarraitzen du, eta etxe askoren aurrean lekuko emakume eta neskekin arin-arin edo orripekota dantzatzen dute. Hor ere, hartza dantzari bihurtzen da, bere modu kaotikoan, jakina. Eguerdiko otordurako, mutil guztiek bildutako jaki eta diruaz elkarrekin bazkaltzen dute.

Arratsaldean, lau maiordomoek *Sagar dantza* emango dute, kaleetatik han hemenka gelditzen dira eta koreografia ederra eskaintzen dute. Eskuetan sagar bina daramatzate. Leku batetik bestera mugitzearen, *Zortzikoa* deituriko doinuaren menpe dantzatzen dute. Lauak erreskadan kokatuta beste koreografiko ibiltaria garatzen doaz. Hauekin, *botilleroa* doa, ardoa eta sagarrak saskian eramaten dituena.

Jai antolatzaile eta zuzendari horien emankizuna amaituta, berriro mozorroek kaleak hartzen dituzten, ilunabar arte.

Egun hauetan ere, herriko enparantzan txistulariak *Jota* eta *Mutil dantzak* jotzen ditu, jendeak alaiki dantza egín dezan. Gainera, azken egunaren ilunabarrean *Soka dantza* eta *Gaita* deituriko dantzak ematen dira, non herriko gazteek, neska eta mutilek, parte hartzen duten. Azken dantza hauetan, lau maiordomok zuzendariak izaten dira, sokaren buruan eta bukaeran jartzen direlarik beren neska bikoteekin.

2.7.3. Maskarak

Beste leku askotan bezala, inauteriak direla eta, Arizkunen ere zapi edota oihal soilez egindako maskarak behatzen ditugu, hemen begientzako zulorik gabe normalki. Gaur egun, mozorroek askotan gomaz edo kartoizko maskara barre-garriak erabiltzen dituzte.

Arizkungo *artza* dela eta, dagokigun herrian mozorroan larru batzuk behar dira, zortzi inguru. Oro har, mozorrotutakoa ere ez da mutil txikia izaten. Gorputz osoa larruz estaltzen du. Galtzak, mahukak eta atorra egiteko larru-piezak josten dira. Buru gainean, kapela sendo baten laguntzaz, beste larrua ipintzen da, aurpegi osoa estaltzearren. Aurretik bularreraino iristen da, eta bizkarretatik sorbalda erdiraino atzetik. Gizakiaren azal zentimetrorik ez da airean gelditzen; bakarririk, begientzat egiten diren bi zulo txiki.

Gaur egun, arizkundarrek hartzarena egiten dute. Baina, guda baino lehen hartz mozorroaren ardura Bozateko biztanleena zen. Hauek hartza prestatzen eta herri barnera eramaten zuten, beste mozorrotuekin batera. Askotan, bi edo hiru hartz erraldoi agertzen ziren, txikizioak sortzen ikusleen artean.

2.8. Errazu

Nafarroako iparraldeko herri hau Baztan haranean ezkutatzen da. Lurraldea oso menditsua. Bere gainean Auza eta Iparla bezalako gailur garaiak altxatzen dira. Pagadiak han hemenka lurra estaltzen dute, haraneko behealdeetan soro eta belardiek nagusitzeagatik borrokara jotzen duten bitartean. Herriko etxeak, zuri eta sendoak, gune txikian biltzen dira. Inguruetatik baserri ugari sortzen dira. Errazu nekazari eta abeltzainen herria da.

Bere jai nagusiak sanpedrotan dira. Hauetan, *Mutil dantzak* eta *Soka dantza* ez dira falta izaten.

San Joan bezperan, etxe guztien atari aurrean *San Juan sue* pizten da. Altzari eta jantzi zaharrak erretzeko aukera ona izaten da, horrela elikatzen baitira su sakratu horiek. Jendeak garren gainetik saltoka aritzea gustukoa du, “*onak barnera, gaiztoak kanporai*” oihupean.

Lehen, Errazuko inauteriak erritoez aberatsagoak ziren, *iñautek*. Gaur egun, ekintza bat baino gehiago baztertuta gelditu da.

2.8.1. Errazuko inauteriak

Guda arte gauzak horrela izaten ziren urtez urte. Beranduago, aldaketa sakinak izan dira.

Herri honetako *ĩñautek* prestatzeko lehenengo mugimenduak Kandelaria egunean hasten ziren. Udalak, *mayordomoak* aukeratzen zituen, bi mutil. Orduan, hauek bi *lagunek* bilatzen zituzten herriko nesken artean. Haien kabuz, aukeratutako bi neska horiek beste bi mutil bilatu behar zituzten. Gero, *botilleroa* deituriko satoa eramatzailerak izendatzen zuten, taldearen intendentziaren ardura-duna. Horrela bederatzikotea osatzen zen, denak ezkongabeak, eta hauek neguko jaiak antolatzen zituzten.

Jai egunak iritsita, herriko jendea txantxetarako prestatzen zen. Hauek igande, astelehena eta asteartea ziren. Lehenengo biak ezkongabeen egunak ziren. Hasierako egunean arratsaldean *damak* plazaratzen ziren, eta hurrengo egunetako arratsaldeetan ere. Hauek *damaz bestie* zeramaten: galtza zuria alkandora bezalakoa; gerriko gorri, orlegi edo urdina; emakumezko margotako zapi handia lepokorapilatuta; buru gainean kapela konikoa, *xapela*, mutil bakoitzaren andregaiak egiten zuena kolorezko paperak eta zintak erabiliz; eta aurreko guztiei helduta, *maskara* bat aurpegia estaltzeko.

Gutxi gora behera, hamalau mutil inguru kaleratzen ziren, eta horrela jantzita *zanbonba* joka aritzen ziren taldean. Tresna hauek bonbo handiak ziren, beraiek egindakoak. Horretarako, ardi larrua hartu eta ondu egiten zuten. Gero, zurezko armazoiaren trinkatzen zuten bi aldeetatik.

Hauen ondoan eta arratsaldeetan ere *mozorroak* kaleratzen ziren, hau da, edozein eraz jantzitako jendea. Aurpegian maskara zeramaten, edo bestela, era barregarriaz margotzen zuten. Mozorrotuen betebeharren artean, neskak eta haurrak harrapatzea zegoen. Umeen ezpainenatik ondokoa entzuten zen: “*Mozorro zinko, una beintizinko; mozorro seis, una kuarentaiseis*”. Mozorroei elizaterpean sartzea debekatzen zitzairen. Horra hor, beraz, zikiratzaileen babes lekua.

Artza ere kaleetan agertzen zen, mutil bat piztiaren antzeraz mozorrotuta ardi larruez. Beste batek soka edo katez lepotik heldu, eta etxez etxe erakusten zuen. Zomorrotu hau ez zen luzaroan kalera ateratzen, bere lana oso nekagarria zela eta. Aitzitik, oso famatu eta pozgarria izaten zen.

Mutil koadrila erraldoi hau, akordeoiaren laguntzaz, igande arratsaldean herriko etxez etxe *biltzen* zihoan: txistorra, txingarra, arrautzak eta dirua. Lehenengoak bi metroko *kerrenean* ezartzen zituzten, eta arrautzak saskian. Hurrengo goizean inguruko baserrietara bisitan hurbiltzen ziren, eskean ere. Bildutakoaz astearte gauean ostatuan afaritara jotzen zuten denak elkarrekin.

Hirugarren egunaren ilunabarrean ezkonduak mozorrotuta agertzen ziren enparantzan. Egun horretan ere *mayordomoek*, lau mutilen artean, *Sagar dantza*

dantzaten zuten; segidan, *Mutil dantzak*, herriko gizonak dantzaturikoak, eta gero *Soka dantza*, nesken laguntzaz. Dantza hauek guztiak jai arduradunek zuzentzen zituzten.

Mayordomo eta neska *lagunen* artean beste protokoloak finkatzen ziren. Gau bakoitzean neska batek bi mutil etxean afaltzera gonbidatzen zituen, eta hurrengoan besteak. Gero, jaiak amaituta, mutilek neskek Elizondoko ostatuan inbitatzen zituzten.

XX. mendeko guda ondoren inauteriak debekatu ziren. Baimena lortzeko, gazteek polizia nagusiak bazkari eta afaritara gonbidatzen zituzten. Horrela, jaiari jarraipena ematea lortu zuten ondorengo urteetan.

2.8.2. Errazuko maskarak

Oso maskara bereziak izan dira Errazukoak XX. mendean. Dirudenez, XIX. mendearen azken hamarkadetan ere berdinak ohi ziren. Denak zuriak izaten ziren, eta *antifaz* itxurakoak, hau da, aurpegiaren goialde erdia bakarrik estaltzen zuten. Oihal sendoak erabiltzen ziren maskarak prestatzeko, feldro lodi eta gogorra, edo antzeko oihala.

Maskara kopetatik abiatuz, goiko ezpaineraino iristen zen, edo masaila erdiraino. Aurpegiaren zabalera betetzen zuen. Behealdetik lihazki ugari eta motz zintzilikatuta agertzen ziren, sudur eta aho gainera. Begientzako bi zulo eliptiko zeramatzan. Hala ere, ikusitako eredu batzuek sudurra ere estaltzen zuten. Buru atzealdean bi sokaxoren bitartez lotzen ziren.

Nolabait adieraztearren, Errazuko karatola hauek barrokoko antzerki eta ballet maskarak gogoratu eta irudikatzen dituzte. Horrelakorik ez du Euskal Herriko beste inon iraindu XX. mende arte, guk jakin ahal izan dugun ondorioz.

Errazuko hartzaren maskara, eta orokorki esanda mozorroa, aurrekoetan ikusitako eruedetatik ez da asko urrutiratzen. Inauteriak oraingoz sasoi onean zeudenean, piztiarena egiteko gazte sendoa izatea behar zen, bere gainean ardi larru ileadun batzuk garraiatu behar zelako, oso astunak zirenak. Mozorroak gorputz osoa estaltzen zuen, oinetatik bururaino, enborra, hankak eta besoak ere.

Burua ezkutatu nahian larrua ere erabiltzen zen. Begientzat bi zulo txiki prestatzen ziren. Larruetako ileak hain luzeak izaten zirela eta, begien aztarnarik ez zen kanpotik ikusten. Gezurrezko hartz erraldoi honen tximak ez zien beste lekurik uzten aurpegiaren osagaiei. Batzuetan, nolabait muturra adierazi nahi zen, eta orduan barne egitura luzetxo bat prestatzen zen. Burua bera nahiko handia izaten zen, mutil mozorrotuarena alde guztietatik zeharo estalita, bere nortasuna bezala.

Hartzaren lana “hartzakeriak” egitea zen, hau da, jarrera bortitza eta basatia adierazi behar zuen, ondoko gauza eta pertsona guztiak astakeriez zirikatuz.

2.9. Lantze

Nafarroako beste nekazal eta abeltzainen herria da Lantze, Pirinio aldeko gailurren azpian kokatuta. Belardiez gain, bere inguruan baso handi eta sakonak zabalzen dira, pagadi zaharrak.

Herria, haran txikian eraikita, famatu bihurtu da asken urteotan bere inauteriak direla eta. Lekuko jai horiei buruz asko izkiriatu da gaur arte. Azalpen etnografikoak ez dira eskasak, eta horien artean badaude kalitatezkoak. Horrengatik, ez ditugu papera eta denbora luzea erabiliko, aurretik esan eta idatzitakoa errepikatzeko. Bakarrik, maskarak testuinguruan kokatzeko zenbait ohar eman nahi dugu.

2.9.1. Lantzeko inauteriak

Herriko *iyotiak* astelehen eta asteartean ospatzen dira batez ere. Parte hartzen duten mozorrotuak *txatxoak* dira. Hauek, tradizionalki mutilek, jantzi zaharrak erabiltzen dituzte, galtza zabalak, alkandorak bezalakoak, eta margo askotakoak ahal baldin bada. Buru gainean kapela desberdinak erabiltzen dituzte, beti koloretako paper eta oihalezko zintez oso apainduta. Batzuek kapela konikoak jartzen dute buruan. Besteek, segalarien lastozko kapela hegaldunak. Ez gaur egun normalki, baina iraganean mitra antzekoak ez ziren arraroak.

Lehen ere, jantzi zahar eta lasak, edota maindire eta gortina zaharren orde, ardi larruak, edo beste motakoak, ez ziren batere arraroak. Aurpegia estaltzeko oso maskara simple baino efektiboa daramate: oihal zeharrargitsua, inongo zuloarik gabekoak aurpegian.



Zapizko maskarak Lantzeko txatxoen aurpegietan (Nafarroa).

*Txatxo*en taldea nahiko handia izaten da. Hogei mutil baino gehiago ager daitezke urte batzuetan. Gainera, oso zaratatsuak dira. Erritoan, handik honantz mugitzen direnean oihuka aritzen dira. Eskuetan erratzak mugitzen dituzte, neskak eta umeak zirikatzeko. Baina, hauek ez dira pertsonaia bakarrak.

Ziripot, mozorrotu lodia, erdipurdika ibiltzen da besteen artean. Bere janke-*ra* osatzearren, zakuak erabiltzen dira, bai bernetan, bai gorputzean. Zaku barruan belar lehorra sartzen diote, irudi lodi-lodia lortu arte. Hori dela eta, arazoak ditu ibiltzeko. Makila luzea eskuetan oso lagungarria dagokio bere ibilaldian herriko kaleetan zehar. Buruan kapela ez zaio falta, segalari kapela hain zuzen.

Zaldikoa beste pertsonaia da Lantzeko erritualean. Oraingoan, zaldia gogoratu nahi duen armazoi arina janzten du. Aurrealdean egurrezko buru txikiak zaldia-rena gogorarazten digu, eta atzealdean abere berdinarenean buztana ikusgai geratzen da. Buruan kapela darama, eta aurpegia beltzez margotzen du. Zaldikoaren betebeharreran ziripota zirikatzea dago, eta bat baino gehiagotan lurrera bota behar du. Azken honen erorketak izugarriak dira, bere “zabaltasuna” dela eta.

Perratzaileak dagozkigu orain. Hiru edo lau mutil dira, zakuez zeharo estalita goitik behera. Buruan, kapelak aparte, saski hautsiak eramaten dituzte, leporaino sartuta. Buru eta aurpegian beste zaku bat daramate, begirik gabea. Bien artean ontzi handi ketsua garraiatzen dute, eta halaber ferraketan aritzeko behar diren tresna batzuk. Edozein lekutatik, bapateko agerraldiak egiten dituzte. Eta agertu bezain arin eta isiltasunez desagertu ere. Hauen lana *zaldikoa* ferratzea da. *Txatxoek* harrapatzen dutelarik, besotik helduta pertsonaia hauengana eraman behar dute, eta orduan ferratzen dute.



Zakuzko maskarak Lantzeko perratzaileengan (Nafarroa).

Txatxo indartsu batek *Miel Otxin* panpina erraldoia garraiatzen du bere sorbaldetan. Eskuarki, galtza urdin handi eta alkandora laukidun edo loreduna erabiltzen dira pertsonaia bizigabe hau apaintzeko. Jantzi barruan belar lehorra sartzen dute. Gerriko, galtzerdi zuriak era abarkak ez zaizkio falta. Barne egitura adarrez egina dago, eta besoak horizontalki luzatuak daramatza. Buru gainean, izugarritzko kapela konikoa jartzen diote, eta aurpegi moduan, kartoizko maskara. Bere amaiera sutean dago, azken inauterietako unean erreko baitute inongo errukirik gabe.

Dirudienez, iraganean beste pertsonaiak ere agertzen ziren. Adibidez, bi emakume jantzi zurietan (mutilak emakumez moztortuta).

2.9.2. Jaia

Inauterietako astelehen goizean *txatxoak* herriko ostatuan elkartzen dira moztortzeko. Horrela inork ez du jakingo bakoitzaren sena. Leku berdineko ganbaran panpina prestatzen da. Eguerdia aldera, gutxi gora behera, *txatxoak* oihiu eta saltoka kaleratzen dira, anabasa harrigarrian hona eta hara mugitzen, haurrak eta ikusleak zirikatzen, eta abar. *Miel Otxin* ere agertzen da, eta eramatzailerak txistuaren soinuaz dantzatzeko mugiarazten du. *Txatxoak* laguntzen dute alde guztietara korrika. Horrela, jarraigoak herritik bira osoa eman behar du. Behin eta berriz *zaldikoak*, beti korrika eta saltoka zaldiarenean, *ziripota* bultzatzen du lurrera bota arte. Orduan, *txatxoek* jaso behar dute, batzuen artean, horrelako gizenkeria mugitzea ez baita inola ere erraza.

Herriko enparantzara iritsi ondoren, biribilean *txatxo* eta herriko gizonen *Lantzeko Zortziko*a dantzatzeko, jaia amaitutzat emanda hurrengo egun arte.

Astearte goizean bezperako ibilaldia egiten da, herriko kaleetatik eta antzeko ariketetan. Arratsaldeko ibilketan *ziripot* eta *zaldikoa* ez dira agertzen. Orain, *Miel Otxin* eta *txatxoek* herria betetzen dute. Berrito enparantzara iritsita, erraldoiari heriotza datorkio. Moztortutakoak eskopeta tiroka hiltzen du, eta lurrera bota ondoren haurrek desegiten dute. Gero, bere erraiei sua ematen zaie. Orduan, *txatxoak* biribilean su inguruan *zortziko*a dantzatzeko dute. Inauterietako erritua amaitutzat ematen da.

2.9.3. Maskarak Lantzen

*Txatxo*en kasuan, aurpegia estaltzeko zapi edo oihal mehe bat erabiltzen dute, normalki zuria. Begi, sudur edota ahoarentzat zulorik ez da egiten. Orduan, aurpegia oihalaren azpian zeharo desitxuratuta gelditzen da. Maskara hau oso sinplea da, ikus daitekeenez, baina era berean oso eraginkorra moztortuaren izateari buruz ezer jakin nahi ez delarik.

Janzteko erak ez du izkutatzekorik: zapia hartuta, lauki eraz normalki, aurpegi gainean jartzen da. Orduan, lau muturrak atzealdera gelditzen dira. Lauak elkarrekin lotzen dira. Buruan kapelak laguntzen du anonimatuia lortzen.

Perratzaileen maskara aurrekoena bezain xaloa da, eta era berean oso eraginkorra ere. Burua zeharo estaltzeko zaku bat erabiltzen dute. Lehen bezala, hemen ere zulorik ez da egiten. Ez da inondik ezer ikusten. Barnealdetik, marregaren sareak argitasunari bidea egiten dio, nahiz eta mozorrotuaren ikusmena benetan murriztuta geratu.

Miel Otxinen maskara zeharo desberdina da. Kasu honetan, bilatzen dena ez da pertsonaiaren nortasuna ezkutatzea, aurrekoetan lortu nahi zen bezala. Oraingoan, aurpegiak gabeko panpina erraldoiari izaera eman behar zaio. Maskarak, proportzioen neurriez, aurpegi irribarretsuaren elementu eta keinu guztiak ditu. Gizon aurpegiaren itxura du, asko ala gutxi komizitatuta seriotasunaren antzik ez emateko.



Lantzeko Miel Otxinen kartoizko maskara (Nafarroa).

Mende honetan, *Miel Otxinen* maskara kartoizkoa izan da, eta Iruineko dendetan erositakoa. Hala ere, aurretik, maskara ordez zapien aurpegia marraz zitekeen, edo paperean marrazten zen. Halaber, ez zen arraroa belarra airean uztea⁵.

2.10. Lapurdi

Pirinioetako iparralde eta mendebaldean kokatzen den Euskal Herriko probintzia Lapurdi da. Itsasertzeko herrietan arrantza lanbide arrunta izan da mendeetan zehar. Hiri burua eta herri handienak itsaso ondoan kokatzen dira gaur egun. Hala ere, probintziaren eremu osoan bezala, nekazaritza eta artzaintzak ogibide nagusiak izan dira mende hau arte, noiz industrializazioaren hastapenak nabari bihurtu diren. Hiri burua Baiona da, eta egun kai komertzial zein zerbitzuzko hiria bada.

Geografiaz, hegoaldean mendiak kokatzen dira. Haran eta gailur horietan artzaintza ez da inoiz faltakoa izan, nekazaritzari helduta. Iparraldera lautada zabaltzen da, non soro eta belardiak alde guztietatik nagusitzen diren.

5. CARO BAROJA, J., *Estudios vascos III. Baile, familia, trabajo*, 95-96 or. (Nafarroa, 1976).

Errobi ibaiak probintzia hego ekialdetik ipar mendebalderantz zeharkatzen du, urezko orbainaren erara. Beste aldetik, iparraldean Atturri ibaiak Landa Zabala eta Lapurdi arteko muga finkatzen du.

Eremu honetan inauteriak direla eta, halaber bere mugak gaindituz zenbait lekutan, Lapurdiko biztanleek oso jarraigo konplexuak antolatu dituzte. Horietan guztietan maskaradunak ez dira faltan egon. Herri batetik bestera aldaketak behatzen dira jaiaren egituraketan, eta maskaradunen janzkeran ere. Batez ere azken hauen bila gabiltzanez, adibide nabarienak aurkeztuko ditugu, adibide orokor eta esanguratsuenaren gisa.

2.10.1. Inauteriak Uztaritzen

Baiona eta Kanbo artekoa izanik, Adur ondoko herri hau Lapurdiko hiriburua izan zen iraganean. Nekazal herria da, eta udalerrriak lau auzo biltzen ditu, horietariko bi elkartuta, Uztaritze bera dena. Beste biak Herauritze eta Arrauntz ditugu. Auzo bakoitzak bere inauterietako jai antolatzen du. Segizioak konplexuak dira, pertsonaia desberdinez osatuak.

lautek deitu ohi diren jai hauek mozorro taldearen antolaketa denboran aurreratzen da. Behin dantzariak eta hauen janzkerak prestatuta, igande batean herrian bertan lehenengo agerraldia egiten dute. Hurrengo igandeetan ondoko herrietaraino hurbiltzen dira, dantza guztiak erakutsi nahian. Horrela, esate baterako, Baiona eta Biarritzeraino iristen dira. Handik, dirua biltzen dute egindako lanarengatik. Azkenez, inauterietako astelehen eta asteartean ondoko auzoetara zuzentzen dira, asmo berdinez.



Uztaritzeko kotilun gorriaren oihalezko maskara (Lapurdi), Baionako Euskal Museoko janzkera gelako irudia.

Herrira iristean, sarrera *Maska dantza* izenez ezaguturiko dantzaz egiten dute. Gero, enparantzan biribila eraikita, beste koreografiak erakusten dituzte: *Sinplea* eta *Marmutxa*. Kalez kale ibiltzen, etxe eta baserri guztietara hurbiltzen dira, non *Arin arina* edo *Fandangoa*, dantzatzen duten gaur egun. *Makila dantza* bat ere eman dezakete. Dantzari bakoitzak bi makila erabiltzen ditu lan koreo-

grafiko honetan. Herriko enparantzan ere eta beste lekuetako ohituraz, beste dantza batzuk eman zitezkeen, hauen artean *Zapatain dantza*, eta *lhautzi* batzuk Lapurdiko erara.

XX. mendean, inauterietako horrelako taldeek izan duten musika laguntza danborra eta klarinetearen eskutik etorri da gehienetan. Batzuetan, bi hauei beste aire tresnak gehitzen zaizkie: tronpeta, saxoa. Akordeoia ere ez da batere arraroa azken hamarkadetan. Iraganean, eta irudi batzuen arabera, txirulak ere dantzarien mugimenduak zuzendu zituen.

Uztarizetik kanpo, antzeko taldeak ere osatu egin dira, dantza gehiago ala gutxiagorekin, dantzari kopurua edota hauen talde egituraketa aldatuz, eta abar: Askain, Ainhua, Sara ...

2.10.2. Taldearen antolaketa

- *Banderaria*: iraganean Frantziako bandera erakusten zuen, nahiz eta egun Euskal Herrikoa eraman ohi duen. Dirudienez, bere janzkera ez da oso zehatza eta apartekoa izan. Askotan, *kaskarotak* bezala agertu da. Bestee-tan, belaunetaraino galtza beltza, eta margo berdineko jaka jantzi ditu, urrezko ertzez apainduta. Galtzerdi luze zuriak eta oinetako beltzak ere janzten ditu. Txapela beltza buruan, eskularru zuriak, eta eskuetan esandako bandera erakusten ditu. Pertsonaia honek talde hasierako tokia hartzen du.
- *Kaskarotak*: dantzari trebeenak izaten ziren. Mutil hauek bikoteka agertzen dira, hamar edo hamabi dantzari inguru, eta beren janzkera oso aberatsa izaten da. Papparreko farfaildun alkandora eta galtza luze zuria dira hornikuntzaren oinarri fisikoa. Azken honen alboetan zintazko marrazkiak eta kaskabildo txikiak josten dira, eta heltzeko tiranteak erabiltzen dira. Gerrian, zinta zabalezko gerriko koropilatua erakusten dute. Antzeko beste zinta batzuk bular eta sorbaldatik gurutzatzen dira, luzeak eta airean mugitzen direnak. Zenbait zinta estu eta txikiago eskumutur eta beso inguruan lotzen dira. Lepoan eta alkandoran zabaldurik, gorbata ikusten da. Oinetan espartina zuri zinta gorridunak janzten dituzte. Buruan mota ezberdinetako *kaskak* erakutsi dituzte. Urte batzuetan, txapel gorri zabala eta oso apainduta, eta besteetan kapela loreduna ere bai.
- *Besta gorriak*: bikoteka agertzen dira, normalki bi edo lau mutil. Txamar gorria janzten dute, urrezko ertzez hornituta, bernetan galtza zuriak kaskarotenak bezalakoak, eta oinetan apaindutako espartin zuriak. Buruan, kapela berezia daramate, oihal urdinez estalita eta oso apainduta paperezko loreez eta burdina-xaflez. Honen azpitik maskara zabaltzen da, oihal gorrizkoa, aurrerago adieraziko duguna.

Esku batean egurrezko ezpata eramaten dute, eta bestean material berdinezko kutxa bat, non bildutako txanponak gordetzen dituzten.

- *Ponpierrak*: bikoteka agerturikoak diren hauek esku batean egurrezko kutxa garraiatzen dute, dirua biltzeko asmotan. Beren txamarra eta galtzak arleki-

natuak izaten dira, hau da, margo desberdinetako bandez egindakoa. Galtza belaunetaraino jaisten da, eta orduan galtzerdi luze zuriak bistan geratzen dira. Bietatik zintzarriek zarata egiten dute dantzarien mugimenduz. Oinetan antzeko espartinak janzten dituzte. Buru gainean kapela koniko luzea daramate, margo desberdinetako paper gimaldatsuez edo feldroz egindako eraztunak pilatuta behetik muturreraino. Honen oinarritik oihalezko maskara luzatzen da, aurpegia estaliz.

- *Kotilun gorriak*: halaber, *marrikak* deiturikoak eta bikoteka agertzen direnak. Artilezko txamar lodi zuria erakusten dute, eta honen gainetik xal handi bat, bularrean lotuta eta bizkar gainean zabaldua. Izterretan, kaskarotena bezalako galtza zuri apainduta janzten dute, eta honen gainetik emakumezko gona gorri luzea eta mantala. Oinetan, espartin zuri hornituak. Gerri inguruan laruzko gerrikoa daramate. Hemendik zintzilik ezkilek izugarritzko zarata ematen dute. Eskuan, behi buztana makila bati lotuta. Buru gainean, kapela koniko berezia ez dago faltan. Kaska txiki bat oinarritzat hartuta, bere makilazko egitura airean hazten da. Makila hauek margotako zintez apaintzen dira, eta antzeko oihalezko beste zinta batzuk muturretik zintzilikatzen dituzte. Mutur hau lumez apaintzen da, eta kaskan bertan ispilu txiki bat ezartzen da. Hemendik oihalezko maskara gorria beherantz erortzen da dantzariaren aurpegia estaliz.
- *Anderea eta jauna*: bikote hau ez da beti agertu iraganean, nahiz eta azken urteotan arrunt bihurtu. Bi mutil izaten dira, oso dotorez jantzitakoak, gizon eta emakumezkoen janzkera erakusten dute, baina hiritar antzekoak.
- Zenbait lekutan, jarraigo inguruan herriko gazte mozorrotuak mugitzen dira, dantzak ikusten edota lelokerietan aritzen.

2.10.3. Maskarak

Lapurdiko euskal hizkeraz, inauterietako janzkeraren elementu honek *maska* du izena, eta lehen esan bezala, garatzen diren dantzen artean bata *Maska dantza* deitzen da. Aipaturiko hiru kasuetan (*besta gorriak*, *ponpierrak* eta *kotilun gorriak*), maskaradunek kapela daramate, zeinari maskara zuzenki lotzen zaion. Orduan, ondorioz, kapela eta maskara bat bihurtzen dira, pertsonaiaren buru eta aurpegia zeharo batu eta estalirik. Bi kasuetan kapela hauek konikoak dira. Bestean ez, ordea: bere goialdea laua da, baina hala ere txano luzea izaten da.

Maskaraz beraz hitz egiten, hiru kasuetan antzekoa dela aitortu behar da, hau da, pertsonaia maskaradun zehatz bat izateak ez du agintzen maskara berezko edo egokia. Zerbait aldatzen bada batetik bestera, ez da pertsonaiaren arabera, egilearen sormenarenaz baizik. Aitzitik, oso antzekoak dira denak, eta dakigunez horrela izan da denbora luzean, XX. mendean gutxienez. Ohiturak muga sendoak finkatzen dizkio egileari.

Maskara hauen egileak, eta orokorki jantzienak, herriko neska gazteak izaten dira. Askotan, prestaketa mutilaren arrebaren ardurapean geratzen da, edo bere

emaztegaiarenean. Lehen, kapelak egiteko oinarrizko egiturak Baionako dendetan erosten ziren, orain bezala normalki. Gero, etxean apaindu eta osatzen dira. Aurpegiko mozorroa egiteko oihal gorria erabiltzen da. Hona hemen eredu arruntetariko bat: oihal pieza zabala da, goialdetik zuzena, alboetatik bezala, baina behera jaistean, ilargi-erara jotzen da, okerdura ahurrez. Goialdean ezik, beste alboetan urre margotako litsezko banda josten zaio. Hemendik hiru edo lau zentimetrotera barnealdera burdina-xafrazko katea ezartzen zaio, era berean urre margokoa, goialdean izan ezik. Begiak eta ahoa marrazteko hiru zulo egiten dira, batzuetan besteetan baino biribilagoak edo eliptikoak, egilearen gustuaren erara, eta antzeko xafra kateaz inguratzen dira. Ahoa xaflez egindako elipse zabalak irudikatzen du, bertikalki material bereaz zeharkatuta bere erdialdean barnetik, baina ez dago zulatuta begiak eta sudurra bezala. Xafra kate luzearen barruan, hau da, begi, sudur eta ahoaren inguruan, beste xafrak josten dira han hemenka, urre edo zilar margokoa (beste koloreak ere ikusten dira, baina kopuru txikiagoan), orezta handiak balira bezala.

Lehen esan dugun moduan, maskara ez da buru inguruan lotzen, kapelaren oinarriaren inguruan baizik, eta orduan oso lasa gelditzen da aurpegi gainean. Lotzearren, bi zinta zuri edo gorri erabiltzen dira, bakoitza goiko ertz batetik abiatuta. Kasu askotan, eta maskara ez dadin mugitu gabe aurpegi gainean dantzatzerakoan, albo berdinarekin aldetik antzeko beste bi zinta ateratzen dira buruaren atzealdean heltzeko.

Berez, aurpegi osoa ezkututzen du. Belarriak ere ez dira ikusten, eta lepotik behera 10 edo 12 zentimetrotan erortzen da bularrerantz. Neurtutako adibideek luzeran 45 cm. inguruko zabalera dute goialdean, kapelan lotzen den lekuan, eta bertikalki neurtuta 30 eta 35 cm. inguruan luzatzen dira.

Baionako Euskal Museoan behatutako maskara batean, *kotilun gorriarena* hain zuzen, begiak oso biribilak dira; ahoa, ostera, txikia eta eliptikoa da. Xafra guztiak urre koloretakoak dira, eta litsak oso ilunduta agertzen dira, urre margoa galduta, denboraren eraginaz.

2.11. Zuberoa

Euskal Herriko probintziarik txikiena ipar ekialdean kokatzen da, Pirinioetako gailur azpiko haran sakonetan. Artzain eta nekazarien eremua da. Bere biztanleria 20.000 pertsonen ingurukoa da. Lurraldeko hiriburua Maule da.

Industria ez da zabaldu gaur arte Zuberoan. Hala ere, azken hamarkadetan, eta behar modernoerantzen emateko asmotan, nekazari eta abeltzain kooperatibak sortu dira herri desberdinetan. Lurraldea oso basotsua da, batez ere hegoalderantz, hau da, Pirinio inguruan.

Nortasun handiko eremua izanik, bere ohiturak zaindu egin ditu denboran. Horra hor, esate baterako, Zuberoako *pastoralak*, antzerki herritar konplexuak, eta *maskaradak*, inauterietako errito zabal eta aberatsa. Lurralde honetan, maskarak azken jai honi lotuta agertzen dira.

2.11.1. Zuberoako maskaradak

Inauterietako jai hauei buruz asko idatzi da gaur arte. Bibliografia zabala aurki daiteke horri buruz. Horrexegatik, ez dugu orain azalpen luzea aurkeztuko. Hala eta guztiz ere, ohar batzuk gogoratzea interesgarria izan daiteke maskararen kokapenaren onurarako.

Berez, jarraigo eta errito honen antolaketa ez da zabaltzen zeharo lurraldearen mugen arabera. Herri batzuetan ez dira osatzen, baina hala ere beste lekue-tatik etorritako *maskaradak* oso gustura onartzen dira. Era berean, Baretus hara-neko zenbait herritan antolatu ohi dira, esate baterako. Gainera, ez dira izan urte guztietako betebeharrak. Ez eta gutxiago ere, bakarrik noizean behika gauza zitezkeen oso errito musikal koreografiko konplexuak dira *maskaradak*.

Zuberoako herrietan, beste hainbat lekutan bezala, inauteriak zirela eta, mutil mozorrotuak kaleratzen ziren eta etxez etxe ibiltzen ziren eskean. Mozorro hauek *maskak* ziren, bereziki aurpegia estaltzeko maskarak erabiltzen zituztela-ko. Baina, *maskaradak* eskatzen dituen antolaketa eta partaidetza maila horren gainetik kokatzen dira, oso maila garaian gainera. Dantzari trebeak behar dira, koreografien zailtasunak txit nabariak dira, janzkerak arduraldi handia eskatzen die egileei. Azken buruan, antolaketarako bame-maila garrantzitsuaz ari gara hizketan. Baldintza egoki guztiak ematen zirenean, herria prest zegoen *maskarada* osatzeko, eta hori gutxitan gertatzen zen.

Dantzari-antzezle desberdin askok parte hartzen dute erritoan. Hona hemen egungo *maskaradetako* pertsonaiak azaletik behatuta:

- a) *Txerreroa*: oso dotore apainduta, dantzari trebea da. Gerri inguruan ezkilak mugiarazten ditu zarata ateratzeko, *maskaradaren* agerraldia jakinaraziz herrira iristerakoan.
- b) *Gatuzaina*: dantzari trebea ere, eta jantzi dotoreaz. Eskuetan *gatia* erabiltzen du, hau da, artazi teleskopiko antzeko egurrezko tresna.
- c) *Kantiniersa*: tradizionalki, mutil dantzari ona izan da, dotoreki neskaz mozorrotua.
- d) *Zamalzaina*: normalki dantzaririk trebeena, eta gainera mutil indartsua. Dantza egiterakoan, sorbaldatik helduta eta gerri inguruan kokatzen duen zaldi armazoia mugitzen du arinki.
- e) *Aintzindari*, *bandelari* edo *enseñaria*: jantzi beltzez apainduta, dantzari ona izateaz gain, bandera eskuetan mugitzen du dantzatzerakoan.
- f) *Jauna* eta *anderea*: lehenengoaren janzkerak gustu dotore hiritarra erakusten du, nahiz eta aldatu denboran. Horrela, fraka ez da arraroa, eta buruan kapela. Esku batean ezpata erakusten du, eta bestean makila. Bigarrena, beste mutila izan aren, neskaz mozorrotzen da, jantzi dotore zuri eta luze batez. Besotik helduta ibiltzen dira, eta dantzan ere parte hartzen dute.

- g) *Laboraria* eta *laborarisa*: beste bikotea, biak mutilak eta nekazari era ilunez jantzita. Gizonaren papera betetzen duenak *akullua* eskuetan darama. Biek ere dantza egiten dute.
- h) *Manitxalak*: bikoteka agertzen dira. Eskuarki, bi, lau edo sei mutil izaten dira. Dantzan parte hartzeaz gain, parodietan ere betebeharra badute, hau da, *zamaltzaina* harrapatu eta ferratzen dute.
- i) *Xorrotxak*: maisua eta bere ikasle edo langilea, jaunaren ezpata zorrotzen dute. Abeslari onak izaten dira, eta bertsoetan aritzen dira erritoan zehar.
- j) *Kestuak*: beste bi, maisua eta langilea. *Zamaltzaina* harrapatu eta zikiritzen dute.
- k) *Buhaumiak*: ijitoen antzeko janzkera erakusten dute, gizon eta emakumezkoen erara, naiz eta tradizionalki denak mutilak izan. Eskuetan egurrezko ezpata handiak daramatzate dantza zehatz batean aritzeko.
- l) *Kauterak* edo *kaoteruak*: gutxienez hiru izaten dira, hau da, *Kaban* maisua, *Pupu* langilea eta *Pitxu* ikaslea. Parodietan aritzen dira eten gabe, edozein modutan dantzatzen eta lurlean botata. Janzkera zakarra daramate, beroki beltz luze eta zaharrak, oinetako handiak, feltrozko txano iluna buruan, eta aurpegia maskaraz estaltzen dute gehienetan.

2.11.2. Jaiaren garapena

Dantzariak herriz herri mugitzen dira *maskarada* erakusteko. Normalki, gaur egun ondoko herrira iristen direnean, jarraigoa antolatzen da eta kaleetatik abiatzen dira, *Barrikada jauztia* deituriko dantzaren eritmorra. Tabernetan gera daitetzeke, edota edariak ematen dizkieten etxeen aurrean. Horrela, enparantzaraino iristen dira.

Egun, herriko jatetxe edo etxeetan bazkaltzen dute, eta berriro arratsaldean elkartzen dira *Branlia* deituriko dantza luze eta kolektiboan aritzeko, non dantzari guztiek parte hartzen duten, herriko neskekin.

Hori guztia bukatuta, *Ofizioak* datoz. Batzuetan *zamaltzaina* ferratu behar da, bestean zikiratu, aurretik *kantiniensarekiko* lan berdinean saiatzen bada ere. Beste batean *jaunaren* ezpata zorrotzu behar da, edo *buhamiak* ezpatatz egindako dantza erakusten dute. Azken batean, *kauterren* parodia dator, ontzi bat konpontzen saiatzen direnean lortu gabe. Honetan ere *Pitxu* hiltzen da, eta sendagi-leak berpizten du.

Ofizioen artean beste elementu musikal koreografiko zailak kokatzen dira: *Godale dantza* edo *Gabota*, esate baterako. Dantzari dotoreek beren trebetasun koreografikoak erakusten dituzte. *Jauzi* dantza kolektiboak ere egiten dira: *Moineinak*, *Aintzina Pika*, *Xibandriak*, eta abar.

Ilunabarrerako erritua amaitutzat ematen da, eta laster dantzariak beren herrira itzuliko dira. Horrela, igandeetan ibiltzen dira urtarrila hasieratik inauteri garaia iritsi arte.

2.11.3. Buhaumien maskarak

Egun, Zuberoako maskaradetan ikus daitezkeen maskara bakarrak pertsonaia hauenak dira. Lehen esan dugun bezala, oso janzkera narratsua erakusten dute, eta bereziki oso iluna da. Buruan, feltrozko txano edo kapela, askotan hautsita, janzten dute.



Altürükü herriko maskaradan, buhaimiak, ahutz larruzko maskaradunak (Zuberoa).

Aurpegikoa *maska* izenez ezagutzen da, eta zuzenki buru atzealdean lotzen da bi lokarriren bitartez. Larruzkoak dira, eta horretarako ahuntz larrua erabiltzen da, ileak bistan utzirik. Aberearen larruaren arabera, kolore desberdinetakoak izan daitezke: arrea, grisa, zuria, beltza, edota kolore nahastutakoak. Oso itxura ez-formalez egiten dira. Orduan, egilearen gustuaren arabera gelditzen dira: batzuk luzeagoak, besteak motxagoak, gogorak ala bigunak. Begientzat bi zulo egiten zaizkie, baina ez normalki sudur edo ahoaren inguruan. Hau dela eta, ikusi ditugun batzuk justu aurpegia estaltzen dute; besteek, aldiz, lepoa ere aurretik estaltzen duten. Batzuetan belarriak airean gelditzen dira; besteetan, ordea, estaltzen dira. Ez daramate beste inongo apainketarik.

2.11.4. Maskararen beste erabilerak Zuberoan

Oraintxe dagokigun lurralde horretan, *maskaradez* gain, iragan hurbilean beste inauteri eginkizunak ezagunak izan dira. Horra hor, esate baterako, mutil

lagun koadrilen ateraldiak ethez etxe gauetan puska biltzean. Agerraldi hauetako mozorrotuak *maskak* dira, eta eginkizunari *maskarada* edo *gaueko maskarada* deitzen zitzaion⁶. Honi buruz, atal honen hasierako lerroaldeetan ohar batzuk eskaini dizkiogu irakurleari. Hala ere, gehiago sakontzea interesekoa izan dakiguke. Azken errito hau, orain arte azaldutako *maskarada* konplexuarekin ez dugu nahastu behar.

Orain interesatzen zaiguna urteroko ekimena izan da. Baina gaur egun oroi-pena besterik ez dela esan behar dugu. Beste aldetik, egun ezagutzen dugun *maskarada* konplexua bakarrik urte eta leku batzuetakoa izan eta izaten da.

Ibilaldia kalez kale ilunabarrean hasten zen, eta talde desberdinak ager zitezkeen herri bakoitzean. Koadrila bakoitzak bere eskea egiten zuen, eta bildutako azafaritara jotzen zuen. Hona hemen J. M. Guilcherren hitzak gaueko errito honi buruz:

Dans la partie de la vallée qui organise d'autre part des mascarades, les quêteurs se présentent généralement masqués. Les masques sont de toile, de serpillière, de peau de chèvre ou de carton, ... La plupart sont affublés de vieilles jupes, souvent avec des tournures bourrées de paille et des corsages gonflés de foin.. Quelques-uns sont déguisés en Bohémiens et Bohémiennes, ...⁷.

Ildo berdinetik, M. Duvertek *gaueko maskaraden* ohiturak zehaztasunetan sakonago azaltzen dizkigu. Hona hemen zenbait adierazpen Tiberoa-Basaburuko maskarei buruz, interesgarrian ikerketan honetan:

Les mascarades nocturnes se faisaient le mardi gras (ihaiteri) et le jeudi gras (lerdo), ... C'était les jeunes du village, ou mieux, de chaque quartier, qui les organisaient. Ils sont célibataires et ont de 18 à 25 ans... Ils sont habillés un peu comme beltzak des mascarades. Ce sont des sortes de bohémiens: habits déchirés, peaux de chèvres, vieilles robes de femme, masques en peau de chèvre, d'agneaux; ...⁸.

Ikus dezakegun bezala, lehen maskaradetan aipaturiko *kauteren* maskarek beste une eta lekuetan parte hartu dute, iraganean, eta inauteriak zirela eta. Hauei gehituta, Euskal Herriko beste lekuetan ikusitako ohialezko maskara sinpleak hemen ere agertzen ziren. Azken finean, aurpegia estaltzea bilatzen zen, anonimatuan egoteko. Egoera horretan, Zuberoan ere material desberdinak ego-kiak izan dira. Hala ere, datuen arabera, dirudienez ahuntz larruzko maskarak, batzuetan motzak justu ahoa estaltzera iristen direnak, besteetan luzeagoak eta bizar moduan bularrean erortzen direnak, Zuberoan oso erabiliak izan dira.

6. GUILCHER, J. M., *La tradition de danse en Béarn et Pays Basque Français*, 539 or. Beste aldetik, M. Duverten hitzetan, "gaueko maskarada" ez da gaur egun ezagutzen Zuberoan, "Maskak", *Dantzariak aldizkaria*, 45 zk., 8 or. (Bilbo, 1989).

7. GUILCHER, J. M., *La tradition ...*, 540 or.

8. DUVERT, M., *Maskak*, 14 or.

Maskaradaren jatorri eta bilakaeraz ez gara kezkatuko hemen, arazo hori ez dagokigulako ikerketa honetan. Horretarako, J. M. Guilcherrek garatutako lan mardula eta oso ongi dokumentatuak laguntza ezin hobea eskaintzen du⁹. Jatorrian, orain bertan aipaturiko puska biltzeak eta mutil lagunartek parte eta garrantzia zuzena izan dute, jai konplexuaren oinarri moduan. Gaur ezagutzen dugun errito zabala XIX. mendetik orain arte osatu eta garatuta, aurreko elementuak desagertu ordez, moldatu egin dira, noski. Ziurki, eta gaurko egoeran jakin dezakegunarenez baliaturik, aurreko mozerro, parodia, maskara eta abar luzea gaurko maskaradaren nahitaezko oinarrietan daude, aipaturiko ahuntz larruzko maskarak ere.

Beste aldetik, Zuberoan ikusitako larruzko maskara hauek Biarnoko herrietako inauterietan osoa arruntak izan dira, han hemenka, beti anarkikoki mozerroturiko pertsonaien aurpegietan, mutil koadrilen eskean, eta abar. Pirinioen mendebaldean oso erabiliak izan dira iragan hurbilean¹⁰.

2.12. Euskal Herriko inauterietako beste leku eta maskarak

Orain arte, eta inauteriak direla eta, alde batetik, maskara adibide batzuk aurkeztu nahi genituen, eredu gisa hain zuzen. Bestetik eta une berean, testuinguruan sustraituta behatu nahi genituen. Aipaturiko eredu batzuk bezalakoak beste adibide asko azal daitezke, baina, orduan, lan hau oso errepikakor bihurtzateke. Zapia maska moduan leku askotan erabilia izan da, esate baterako, eta aldaerak ez dira esanguratsuak. Hartz maskarak leku desberdinetan agertzen dira, eta eskema berdinari jarraitzen zaio kasu gehienetan. Horrexegatik, ereduak ematea nahikoa izango dela pentsatzen dugu, inauterietan maskararen erabilera ikusi nahian. Une berean, beste kasu berdintsu asko eredu horietan isla daitezkeela gogora dakargu.

Atal honetan, lekuko beste adibide batzuk aipatuko ditugu, jaiari batere sakonki murgildu gabe. Batez ere, ideia kuantitatibo orokorra eman nahi dugu. Beraz, ondorengo kasuak aurreko ereduaren arabera behatuko ditugu, baina erabilitako irizpidea materiala bera izan daiteke irakurketa praktikoa lortzeko asmoz.

2.12.1. Zapi eta oihalak aurpegian

Leku asko eta askotan erabili dira horrelako maskara sinpleak: oihal zuri bat aurpegi gainean, edota margotako oihala edo zapi landugabea. Alderak hauek dira: begi eta ahoarentzat zuloak eraman, ala zulorik gabekoak.

9. GUILCHER, J. M., *La tradition ...*, "La mascarade souletine" atala, 543-686 or., batez ere 668-686 or.

10. GUILCHER, J. M., *La tradition ...*, "Le carnaval en Béarn" atalean adibide ugari azaltzen dira, 493-513 or.

Lesakako *zaku zarrak* deitzen diren mozorrotuek inauterietako igande ilunabarrean beren agerraldia egiten dute herriko kaleetatik bira handia emateko asmotan. Zakuez egiten dute mozorroa, oso lasa: bernak eta gorputza elkar josten dira. Gero, barrutik belar lehor asko sartzen da. Izakiak oso potolo eta baldarrak suertatzen dira. Buru gainean lastozko kapela hegaduna jartzen dute, eta aurpegia estaltzeko zapi zuria atzealdetik lotuta. Begi eta ahoarentzat zulo txikiak egiten dira. Eskuan maskuria ez zaie falta, kolpeak banatu nahirik ikusleen artean, eta batez ere neska eta haurren artean. Ezinezkoa zaie korrika egitea, eta erdipurdika ibiltzen dira ilara luzean. Hogei mutil baino gehiago elkartu ohi dira.



Zapi zuri zuloduneko maskarak Lesakan, zakuzarren aurpegiak estaltzeko (Nafarroa).

Zalduondoko *los porreros* deritzanak antzeko pertsonaiak dira, nahiz eta oraingoan bi edo hiru baino gehiago ez diren izaten. Halaber, zakuzko jantzi lo-diak erabiltzen dituzte, belarrez beteta. Hain potoloak izateagatik, ia ezin dira ibili. Aurpegia zapi batez estaltzen dute, non begientzat zuloak ez diren falta. Edota, kasu berdinean, zapi ordez zakuaire oihala bera erabiltzen dute.

Nafarroako Ultzama haraneko Iraitotz herrian, *ioteak* zirela eta, arratsaldeetan herriko enparantzan *txatxuak* agertzen ziren, mutil *txatxutuak* edo mozorrotuak. Buru gainean kapela koniko ederrak eramaten zituzten. Aurpegia zapi zuri meheaz estaltzen zuten, zulorik gabea, bere sarearen bitartez ikus zitekeen eta. Gero, gorputza estaltzeko etxeko jantzi zaharrak oso bidezkoak ziren, edo maindire eta gortinak... Larruak ere egokiak ziren janzkera osatzeko. Haran berdineko Alkoz eta Autza herrietan, esate baterako, mozorrotuek antzeko janzkera erakusten zuten, aurpegia ere era berdinean estalita.

Nafarroan jarraituz, Baztango Amaiur herrian *iñauteak* deitzen ziren jaien garaian, mutil mozorrotuak agertzen ziren kaleetatik, *mozorruak*. Buru gainean

ttutturro deituriko kapela konikoa janzten zuten, eta aurpegia *maskaratua* zera-maten. Horretarako, zapi zuri mehea jartzen zuten aurpegi aurrean, oihalean zehar ikus ahal izateko zapiak ez baitzuen zulorik. Hemen era *artza* agertzen zen, ardi larruz mozorroturiko mutila.

Arabako Reitegi herrian maskaradunek, *los cachis*, aurpegia estaltzeko oihal zahar bat erabiltzen zuten.

Gipuzkoako Elduaien herrian, mutil mozorrotuak *txantxoak* ziren, askotan emakumezkoen janzkeraz agertzen zirenak. Hauek, *mozorrotuak* deiturikoak zakuzko jantzi lasak belarrez beteak zeramatzaten, baldarki ibiltzen kaleetatik. Hauek, aurpegia estaltzeko oihal zaharra erabiltzen zuten, atzetik lotuta eta zulorik gabea.

Lizartzako *iñauteriak* deituriko neguko jaietan dantzari trebeek parte hartzen zuten. Horietaz gain, *mozorrotuak* ere agertzen ziren, edozein modutan jantzita, beti era barregarriaz. Azken hauek aurpegia oihal zaharrez estaltzen zuten.

Beste leku askotako maskaradunek zapiak edo oihalak erabiltzen zituzten aurpegia estali nahian, aurreko kasu guztietan bezala: Betelun, Zigan, Etxalarren, Bidangozen, ...

Nafarroako Aurizberriko *muzizarkoek* gortina fina janzten zuten aurpegian. Honen zehar, ingurua ikus zezaketen.

Beintza-Labaien herriko *zarpak* deiturikoek, mozorrotutako mutilek, aurpegia estaltzeko emakumezkoren errezelak erabiltzen zituzten.

Hona hemen oihalez prestaturiko maskara jator bat: Bizkaiko Mundakako *aratusteetan atorak* deituriko mozorrodunak agertzen dira, musika taldeak osatuz. Hauek, emakumezkoen lino zurizko alkandora eta gona lasak janzten dituzte. Gero, burua estaltzeko buruko-azal zuria erabiltzen dute. Pieza honek muturrean farfaila daramanez gero, mozorrotutakoak horren zuloetatik bere ingurua bistaz menpera dezake.

2.12.2. Hartz maskarak

Aurreko ataletan hartz mozorro eta maskara eredu adierazkor batzuk eman ditugu. Horiek ez dira bakarrak izan Euskal Herriko herrietako inauterietan. Ez eta gutxiago ere. Irakurleak maskara berezi honen garrantzia kuantitatiboa balora dezan, ondorengo pasarteetan beste adibide batzuk ezagutarazi nahi ditugu, erri-toen egitura eta bilakaeran sakondu gabe hala ere. Aipaturiko helburuaren bila aritzean, bakarrik ohar batzuk ematea nahikoa izango dela pentsatzen dugu. Azken orrialdetako bibliografiak informazio gehiago eskaini dezake, nahi izanez gero.

Nafarroako Ituren eta Zubietako inauteri jaiak oso famatu bihurtu dira azken urteotan. *Yoaldunak* deitzen diren mozorrotuen inguruan jende asko biltzen dira. Gauzak horrela, erritoan parte hartzaileek mugitzeko arazoak izaten dituzte. Konpartsa hauetan, *artza* delako mozorrotua agertzen da, mutil bat ahari larruetan

ezkutua. Ez du edozein larruk balio. Oso ile luzeak dituztenak behar dira. Bi larruren bitartez hankak estaltzen dira. Besoetan, beste bi erabiltzen dira. Gorputzean beste hainbeste behar dira, gutxienez. Gero, burua prestatzeko beste larru bat erabiltzen da.



Iturengo hartz adardunaren maskara (Nafarroa).

Kasko bat larruz estaltzen da alde guztietatik. Gainera, mutur luzea darama, eta horretarako barneko egitura sendoa prestatzen zaio. Bi zulok begientzako lekua uzten dute. Gainera, maskara hau adarduna da. Kopetatik bi ahari adar luze eta oker abiatzen dira.

Hartzak bere hezlea dauka, hau da, beste mutil mozorrotua. Honek, katearen bitartez piztia maneatzen du, eta makilaz egurra eman behar dio gehiegi ikaraten denean, hau da, ia-ia eten gabe. Hartz hau, beste leku gehienetakoak bezalakoak, basakerietan ibiltzen da. Jendea zirikatzen du behin eta berriz. Bortitza izan daiteke ikusleak astindu nahi dituenear.

Nafarroako Amaiurren antzeko maskara aurkitzen dugu. Inauterietan *artza* zelakoa agertzen zen. Kargua, ardi larruz mozorroturiko mutilaren ardurapean zegoen. Beste mozorroak eramaten zuen kate sendoaz. Gisa-piztia hau arrisku-tsua izaten zen, oso bortitza.

Gipuzkoako Bergaran aurrekoak bezalako hartza agertzen zen inauterietan. Lurralde berdineko Antzuolan ere bai. Azken herri honetan, askotan hartz batzuk agertzen ziren, taldeka handik hona basatikerietan aritzen zirenak.

Hartz mozorrotuen taldeak ez dira hain arraroak izan. Aurreko kasua ez da bakarra. Bizkaiko Elorrioinauterietan bi edo hiru hartz agertzen ziren, ardi larruz

mozorroturiko mutil sendoak, ahal ziren bezain handiak herriko guztien artean aukeraturikoak. Hauek, sorbaldan joare batzuk lotzen zituzten. Mugitzen zirenean (eten gabe) zarata izugarria sortzen zuten. Iraganean, maskarak aurpegi osoa estaltzen zien. Azken denboraldian, aurpegia larruz estali ordez, beltzez margotzen zuten. Antzeko eragina lortzen zuten, hain itota sentitu gabe.

Arabako Gatzagan ere beste bi hartz azaltzen ziren zeharo goitik behera larruz estalita eta aurpegia ezkuturik, *los osos*. Beste mozorrotu batek biak gidatzen zituen, piztiak beti ondo lotuak eramanda. Sorbalda eta larru artean zurezko taula bat gordetzen zuten. Hezleak egurra ematen zien tauletan, zarata izugarria aireratuz makilakaden bitartez. Hartzen jarrera oso basatia zela esan behar da, aurreko kasu guztietan gertatzen zen bezala.

Arabian jarraituz, Zalduondon ere beste hartza agertzen da inauterietan, *el oso*.

Lehen, Zuberoa eta Nafarroa Behereko inauterietako maskarada eta konpartsetan *harza* pertsonaia maskaradunaren agerraldiak arruntak ziren. Iparraldeko lurraldeetako maskara hauek jolasten eta jendea zirikatzen aritzen ziren. Bitartean, leku bakoitzeko hezleak bere gisa-piztia gidatzen zuen, eta ihesaldiak bidezkoak ziren. Beti mutil handiak aukeratzen ziren ardura hauetarako. Azken hamarkadetan piztia hauek ez dira hain ugari agertzen. Nafarroa Behereko hartz maskarari buruz, hona hemen V. Alfort 1.930 urtean idatzitako lerro interesgarri batzuk:

Basse Navarre.- Then, cavalcades in the province of the Pays Basque process in Carnival time, led by dancers decked with bells and ribbons, who approach our Morris men extraordinarily closely. Various characters trail behind the dancers, amongst whom once was a dancing bear with his leader. When the Cavalcades go out for Carnival dancing bear they are called Santibate, i.e. Carnival. When they go out for Tobera Mostrak, i.e., a show or play in punishment or derision of some village bad behaviour, they are composed of a great number of people, judges, lawyers, actors representing the culprits, beggars and buffons; a Fool also, and the bear. ...¹¹.

Zuberoako maskaradetako hartz maskara ikerlari batzuek aipatu dute orain arte beren idazlanetan. Dirudienez, mozorroa prestatzeko XX. mendean ahutz larruak erabiliak izan dira batez ere¹². G. Hérellek, Chaoren idatzitakoari jarraituz, piztiaren parodia hitz hauetaz azaltzen du:

Une lutte dansante, avec feintes, attaques, coups de hache, grognements formidables, s'engageait entre la bête féroce et le Berger, tandis que les Agneaux affolés cherchaient à échapper par la fuite à leur cruel ennemi. Finalement l'Ours battait en retraite; mais au moment où le Berger célébrait sa victoire, l'Ours revenait en tapinois, séparaient d'un Agneau et regagnait

11. ALFORD, V., "The springtime bear in the Pyrenees", *Folk-Lore aldizkaria*, XLI, 266 or. (London, 1930).

12. GUILCHER, J. M., *La tradition ...*, 564-565 or.

précipitamment la montagne. En l'occurrence, la montagne était une maison voisine, sur la toit de laquelle, au bout de quelques minutes, on voyait le monstre reparaître avec sa proie. Cris de colère; coups de fusil tirés par les Bohémiens. Le berger s'élançait à la poursuite de l'Ours, qu'il en tardait pas à rejoindre sur le toit. Là une nouvelle lutte s'engageait, et, dans le tumulte de la bataille, l'Agneau, lâché par son ravisseur, glissait, roulait, tombait dans la rue. Inutile de dire que, avant cette tragique péripétie, une poupée avait été substituée à l'enfant agneau¹³.

Azken hamarkadetan, zenbait lekutako maskaradetan hartz mozorroa ere agertu da. Guk ikusitakoaz oinarrituta, mutil sendo bat bilatu da betebeharrarako, eta ahari larruaz goitik behera jantzi egin dute. Aurreko kasuetan bezala, basakerietan ibili da, bere gidariengandik ihes eginik, ikusleak zirikatzen eta jipoitzen.

J. M. Guilcherrek dioen arabera, Lapurdiko Ainhoa herrian ere hartz maskarak parte hartzen zuen iragan hurbilean, beste mutil batek gidatuta¹⁴.

2.12.3. Hartz maskarak Euskal Herriko inguruetan

Hartz mozorroak oso ugariak dira Penintsulako iparralde osoan, Galiziatik Kataluniaraino, guk orain dela hogeitau urte inguruan garaturiko ikerlan batean maskara zehatz honi buruz jaso genuen informazio ugariaren arabera. Neguko jaietara lotuta, batez ere inauterietako pertsonaia da hartzak.

Maskaraz arduratzen bagara, bildutako kasu gehienetan ardi edota ahari larruz egindakoak izaten dira, larru ile luzedunak. Bi motatako maskara-egiturak beha daitezke, eta hau ere Euskal Herriko adibideekiko baliagarritzat onartzen dugu, beti gure landa lanean oinarrituta. Alde batetik, maskararik sinpleena larru hutsa izan da, buru gainean kokatuta txano handi gisa eta oso lasa. Abere azal hau burutik bular eta sorbaldaraino jaisten da, dena estaliz. Begientzat zuloak egiten zaizkio. Bestetik, egitura sendoagoa hartzen duten maskarak badaude, hau da, burua asko handitu nahian kasko bat edo antzeko zerbait jantzen da, eta larrua honen gainetik albo guztietara erortzen da. Gainera, horrelakoetan ez da harrizkoa, oso arrunta baizik, muturra ondo definitzea, eta orduan makila txikiez egindako egituratxo bat prestatzen zaio maskarari, edota kartoizkoa. Gainera, leku askotan jakin izan dugun moduan, maskara xalotasunetik egitura konplexuagoetara urtetik hurrengora bidera daiteke, mozorrotzen den pertsonaren gogoan arabera.

Mozorro hau eta bere parodia direla eta, Penintsulako iparraldea zehatzago behatzen badugu, erritoan mendebaldetik ekialdera aldaketa bat dagoela baieztatzen dugu. Galiziatik Euskal Herriraino, gidariak hartza paseatzen du handik

13. HÉRELLE, G., *Les mascarades ...*, 173 or.

14. GUILCHER, J. M., *La tradición ...*, 514 or.

hona, nahiz eta mozorro bortitza izan. Piztiaren ehiza edo hilketaren antzezpen aztarnak eskasak dira. Aitzitik, Euskal Herriko Zuberoatik Kataluniaraino, hau da, Pirinioetan, hartza ehizatutako mozorroa da eta leku gehienetan bere hilketaren parodia antzezten da ikusleen aurrean: ehiztariak mendira doaz eta harrapatzen dute, kateatuta ekarri eta kasu asko-askotan hiltzen dute. Aukera hauek erritoaren bi aldaera ezberdin eta esanguratsuak dira¹⁵.

3. MASKARAK UDAKO JAIETAN

3.1. Udaldiko maskarak

Azken hamarkadetako gauzak ikusita, maskara soil-soilik inauterietako tresna dela norbaitek pentsa lezake. Gaur egun jaso dezakegun datuen arabera, aitortu behar da azken aldietan inauterietarako joera egon dela. 1936 arte, ez da inauteririk egon maskararik gabe. Neguko jai horietan, mozorroa bera bezain funtsezkoa izan da. Gero, handik hona berpiztu diren jaietan maskarak ez du, agian, hainbesteko lehentasuna bereganatu. Hala era, gaur egun inauteriekin pentsatzen dugunean, maskararen irudia, zehatz ala abstraktuagoa, burura datorkigu.

Baina, oraingoz Euskal Herrian gordetzen diren maskara batzuk, kopuru txikian egia esateko, beste sasoietakoa jaietara lotuta azaltzen zaizkigu. Batzuek zerikusi handia dute Gorpuzti jaiarekin. Besteek, aldiz, herriko jai nagusiekikoa dute, eta horrelako jaiak udakoak izaten dira gehienetan.

Bi dira, batez ere, gure esparruan gaur arte udako jaiarekiko maskara gorde duten lekuak: Gipuzkoako Oñati eta Nafarroako Otsagi. Lehenengo kasuan, maskara taldea Gorpuzti jaietan agertzen da prozesio erlijiosoan. Besteak, Otsagikoak, lekuko izaki zaindariaren omenezko erritoetan parte hartzen du.

Ildo beretik aurrera jarraituz, aurreko mendeetan udako maskara askoren informazioa jaso dezakegu, oraingoz, baina zehar-iturrien bitartez. Iraganeko dokumentuetan udako mozorro eta maskarak behin eta berriz aipatzen dira, biak sasoioko erritoei lotuak. Eta, zer esanik ez, korte edo nobleziak antolatutako jaietan. Azken aspektu hau ez zaigu asko interesatzen orain, tradizio herritarren urratsei jarraitzen ari baikatzaizkio. Lehen aipatutako maskara herritar horien azterketan murgildu baino lehen, eta gaiari erantzun osoa emateko asmoz, udako maskaren iraganaz zertxobait gehiago jakitea beharrezkoa dugu. Horretarako, testuetara jo beharko dugu, artxibo zein beste dokumentu zaharretako oharra behatuz. Hona hemen, beraz, adibide batzuk eta ekarri nahi dugun lehengoa Oartzungoa da, S. Mugicak jaso zuena Euskal Herriaren Alde aldizkarian, eta 1683 urtekoa da:

15. Penintsulako beste lekuetan ere hartz maskarak inauterietan agertzen dira: Cáceres aldeko La Vera lurraldean, Gredos inguruko haran eta herrietan, Errioxako leku desberdinetan, eta abar. Era berean, Europako neguko maskaradetan maiz agertzen den pertsonaia dela gauza jakina da.

..., reunido el Ayuntamiento con fecha 29 de septiembre de 1683, con la mayor parte de los vecinos del Valle a son de campana tañida para conferir y tratar las cosas tocantes al servicio de Dios Nuestro Señor y bien y utilidad y aumento de la república, a instancia, persuasión y representación de los Reverendos PP. de la Compañía de Jesús, que se hallaban de misión, que eran ..., representaron éstos que mediante el mal abuso y costumbre perniciosa que existía en el Valle de disfrazarse de mozorros los días de San Juan, San Pedro y San Marcial, habían sucedido muchas pependencias y ruidos, como se había visto aquel año con la muerte de Joseph de Olaciregui, acaecida en la riña que se suscitó en la plaza de Elizalde entre los vecinos y los mozorros que salieron enmascarados, y a fin de poner remedio para la mejor armonía de los vecinos y naturales, se trató del asunto latamente entre los vecinos y los PP. Predicadores, acordando de mutua conformidad, que en adelante ninguno saliera disfrazado de mozorro en los dichos tres días, ni en otra fiesta alguna, ...¹⁶.

Hara non aipatzen den maskara udako jaietan! Debekua da testu honen funtsa. Tartean, tradizioen debekuetan mendeetan parte zuzena hartu duten inkisido-reak aurkitzen ditugu. Antzeko zergatia arruntena izaten da aipamen hauetan.

Horrez gain, eta gaiaren muinari heltzen, “mascara” hitza agertzen da testuan, eta bere ondoan “mozorro”. Bata eta bestea, ez bazen nahikoa horietariko bakarren bat adieraztea. Goazen aurrera.

Ondoko oharra Legazpiko udal artxibokoa da, eta Gipuzkoako herri horretako jaiet buruz A. Muruak egindako idazlanean azaltzen du. Berriro, maskara Gorpuzti egunari lotuta agertzen zaigu. Oharraren data 1624ko ekainaren 9a da:

A Francisco de Oñativia de la costa de 17 que danzaron la danza de espadas el día del Corpus y de los tamborines, atabalero, cachidiablo y bobo ... 6 dcs.

A Domingo de Arabaolaza de las máscaras que se han perdido y de su traída ... 9 rls¹⁷.

Gastu-ohar hau aberatsagoa da. Baina, gure helburuaren bila aritzeko aurrekoa nahikoa da. Maskara batzuk behar dira Gorpuzti eguneko ezpata dantza egiteko Legazpin. Bi pertsonaia-izen aipatzen dira: *cachidiablo* eta *bobo*, biak oso arruntak penintsula osoan, geroko adierazpenetan ikusiko den bezala. Hala ere, maskara horien ezaugarriei buruz beste informaziorik ez dugu.

J. M. Jimeno Jurio Nafarroako errito herritarren azterketa sakona luzatu du anitz idazlanetan. Ikerlari honek jaso duen moduan, artxiboetako oharretan maskararen aipamena ez da arraroa. Ondokoa Arronizkoa da, 1604 urtean data daiten eta herriko jai nagusiak ditu helburu, lgokunde egunekoak:

16. MÚGICA, S., “Antiguas costumbres. Las máscaras”, *Euskal Herriaren Alde Aldizkaria*, 78 zk., 165-168 or.

17. MURUA, A., “Fiestas y danzas en Legazpia”, *Dantzariak Aldizkaria*, 32 zk., 21 or. (Bilbo, 1986).

...estando en costumbre la dicha villa de Arroniz de hazer fiesta por la solemnidad del día y ser la adouocacion de la dicha iglesia, y solemnizar la dicha fiesta con danças, autos y otras cosas, hauiendo entrado en dicha iglesia ziertos danzantes con sus mascarar y tomado algunas obladar a las mugeres qu'estaban sentadas en sus asientos ... y les obligó a quitarse la máscara ... unos enmascarados andaban deshonestamente entre las mugeres, y muy indecentemente ...¹⁸.

Ondoko oharra Lizarrakoa, 1549 urtekoa, eta kasu honetan Gorpuzti egunari dagokio:

A Vertol de Billadiego, vezino d' Estella, diez reales de maxcaras, cascabeles y de huna colacion que yzieron seys personas que andubieron el día del Santo Sacramento dançando en la procesion del dicho día por mandado de la Ciudad¹⁹.

J. M. Perez Garciak idatzitako liburuan Bastidako jaiak azaltzen ditu, "La M. N. y M. L. Villa de Labastida". Gorpuzti eguneko dantzari buruz, hona hemen idazlearen hitzak:

Desde el siglo XV tenemos noticias anuales de la celebración de danzas el día del Corpus Cristi, danzas cuyas características nos son hoy desconocidas, aunque sabemos que había cachimorro, con casaca y máscaras, pero que adquirieron gran renombre en todo el contorno ...²⁰.

Gorpuzti eguneko erritoak oso egokiak izan dira dantzariak maskarak erakusteko, Euskal Herria zein Penintsulako beste leku askotan. Udako beste dantzetan dantzari maskaradunak ere ez dira eskasak izan. Gaur egun, joera horren aztar-na gutxi dugu, baina idatzitakoak maskararen erabilera zehatza baieztatzen du.

Udako erritoak direla eta, egungo Euskal Herrian bi lekutan maskarek iraindu dute: Gipuzkoako Oñati eta Nafarroako Otsagi. Hauek dira gure ikerketaren hel-buruak ondorengo ataletan.

3.2. Otsagi

Herri eder hau Nafarroako Pirinio azpian kokatzen da, mendien hegoaldera irekitzen den Salazar haranean. Bere ekonomia artzaintzan oinarritu da mendeetan zehar. Eremu honetan, artzainek udaberrik udazken arte goiko mendietako belardietan beren artaldeak zaintzen dituzte. Gero, negura begira, abereak hartu eta hegoaldera zuzentzen dira, Bardenara batez ere.

18. JIMENO JURÍO, J. M., "La fiesta del Corpus en Tierra Estella", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkaria, 50 zk., 214 or. , "64. ADR: Car. 449, n. 26, ff. 24-25, 40. (Iruña, 1987).

19. JIMENO JURÍO, J. M., "La fiesta ...", 215 or. (A. M. Estella: Cuentas de propios, Lib. 1, 1549, n. 44).

20. GARCÍA PÉREZ, J. M., *La M. N. y M. L. Villa de Labastida*, 279 or. (Gasteiz, 1985).

Hala ere, artzaintza ez da izan ogibide bakarra. Nekazaritzarentzat ere lekua egon da. Inguruko zelaietan gari eta garagarra landu egin dira. Soro eta baratzeetan, beharrezkoak diren barazki eta fruituak ere lortu eta lortzen dira.

Herri honek jai nagusiak irailaren 8an ospatzen ditu, Muskildako Ama Birjinaren omenez. Muskilda ermita, izen berdineko gailurrean kokatzen da, herri gainean eta baso zabal eta trinkoaren artean, non haritzak eta pagoak nagusitzen diren. Hala ere, egun koniferoak ere hedatuta daude inguruetan. Esaten ari garen bezala, mendi hau malkartsua da. Herritik baselizaraino ezpelen arteko igotzeko bidexka aldapatsuari jarraitu behar zaio, etengabeko bira-aldian garaia irabazteko. Ordu erdia igarota, ibiltariak harrizko ermita ederra aurkitzen du haren begien aurrean. Harmaila batzuek sarreraraino iristea baimenduko diote. Hor, ermitauaren etxe ondoan ibili ondoren, patiora iritsiko da, justu benetako ermitaren sarrera aurrean eta arbelezko teilatu koniko azpian.

Bere barruan iluntasuna izaten da nagusi. Atetik eskuin aldera aldare txikia dago, eta azken honen gainean Muskildako Ama Birjinaren irudia, altxor txikia, ederra. Bidaia neketsua bada ere, sariak merezi du.

Ama Birjinaren agerraldiaz mendez mende iraun den legendan, deidade emea haritz batetik sortu zela aipatzen da.

Patio horretan dantzariak haien koreografiak erakutsiko dituzte, makila dantza batzuk, zapiak egindako beste bat, eta jota.

3.2.1. Muskildako dantzariak

Herri honetako dantzariak, *los danzantes*, zortzi mutil dira, eta lanean laguntzeko beste pertsonaia agertzen da, aurrekoak baino adin handiagokoa izaten den gizona, *el bobo*. Dantzarien janzkera horrelakoa da: harizko alkandora zuria, material berdinezko lepoko zabalaz apainduta; galtza zuria belaunetaraino, baita ere harizkoa; hemendik bera, galtzerdi luze zuriak, eta oinetan espartinak, batzuetan “balentziarrak” eta besteetan zuriak zinta gorriez apainduta; belaunetatik behera zintzarriak heltzen dituzte, mordo handian larruzko egitura baten bitartez ilara bertikaletan josita; gerrian zapi zuri luze bat korapilatzen dute hiruki moduan ipinita, korapiloa aurrera begira gelditzen delarik; *la echarpa* deituriko zinta batzuen egitura bular eta sorbaldatik gurutzatzen da, atzealdean zeharkatuak eta aurrean zuzenak; lepo inguruan, margo desberdinetako zinta zabal asko kokatzen dituzte, denak elkar helduta, lepotik gerriraino jaisten direnak alkandora estaliz aurretik eta atzetik; buru gainean txano txikia daramate, *la cachucha*.

Boboaren janzkera oso desberdina da. Jantzi arlekinatua darama, bi margo nagusitan eginda: gorria eta orlegia. Apaindurak urrezko hariez eginak daude. Galtza belaunetaraino iristen denez, galtzerdiak airean gelditzen dira, eta hemen ere bi margoen agerraldia dugu, bata gorria eta bestea orlegia baitira. Nahasketa honetan, espartinen koloreak ere aurrekoekin aurkakotasunez konbinatzen dira. Zintzarriak ez dagozkio faltan, eta txanoa ere ez. Anekan dantza tresna batzuk garraiatzen ditu, eta beste eskuan makila batez larruzko puxika bat mugitzen du,

arteaz beteta. Gainera, dantza batzuetan bi aurpegitako maskara erabiltzen du, oso aberatsa bere itxuraz eta laster ezagutaraziko duguna.

Jantziak Muskildako Patronatuaren menpean gelditzen dira urtean. Irailaren 7an dantzarietara banatzen zaizkie, ongi zainduta, konpondu eta jaietarako apainduta.

Taldeak, horrela jantzita, parte zuzena hartzen du herriko jaietan Ama Birjina, Udalaren eta biztanleen aurrean.

3.2.2. Dantzaren erritua

Irailaren 7an, hau da, jai nagusiaren bezperan, arratsean dantzariak elkar-tzen dira, eta Udalari eskolta emanez elizaraino hurbiltzen dira, salbetara. Gero, leku batean tresna-dantza guztiak emango dituzte, alkate, zinegotzi eta herritar guztien aurrean.

Hurrengo goizean, egun nagusian, dantzariak goiz baselizaraino igotzen dira laguntasunik gabe, Ama Birjinaren aurrean dantzatzearen. Meza ondoren, herrira jaisten dira, eta kalez kale etxe nagusi batzuetara hurbiltzen dira, beti dantzan.

Arratsaldean, frontoian berriro dantza guztiak emango dituzte, orain berriro udal plenoa eta herritarren aurrean.

Lekualdatze guztietan, zortzi mutilak lau bi lerrotan antolatzen dira, *boboa* buruan kokatuta, eta *Paseo* deituriko koreografiak aurreratzen dira kriskitinez eskuetan.

Dantza tresnen artean lau makila dantza daude: *Emperador*, *Cachucha*, *Danza* eta *Modorro*. Hauetan guztietan dantzari bakoitzak bi makila motz erabiltzen ditu, ezpelez edo gorostizkoak. Gainera, *Pañuelo* deiturikoan dantzariak zapien bidez sare bat osatzen dute, bi lerrotako egitura galdu gabe, eta *boboa* haien artean mugitzen da talde osoaren mugimenduak zuzentzen. Dantza hone-tan *boboak* bere maskara jantzi behar du. Azkenez, *Jota* bat badago, kriskitinez lagunduta, bakarka zein kolektiboki dantzurikoa.

3.2.3. Boboaren maskara

Idatzi dugun moduan, soilik *bobo* deituriko pertsonaiak maskara jantzen du, eta gainera dantza bakar batean, hau da, *Pañuelo* deiturikoan. Ezaugarri nagusienetakoa hau da: bi aurpegi erakusten ditu, bata aurrera begira, eta bestea atzera. Buru osoa estaltzen du, eta sorbaldetan nahiko lasa gelditzen da. Oihala erabiltzen da egiteko. Marko gorri baten gainean bi aurpegi marrazten dira. Aurpegi bat beltza den arren, bestea zuria da. Bietan begi eta ahoarentzat zulo eliptikoak erakusten ditu. Aurpegi, aho eta begiak urrezko hariak inguratzen dira. Sudurra adierazita badago, eta horretan beste bordatua erabiltzen da. Bizarra

ere definitzen da, alde batean beltza eta bestean zuria, aurpegiaren margoaren aurkakotasuna bilatuz eten gabe. Goialdetik, motots lodi eta luzea erortzen zaio, bi koloretakoa ere, gorria eta orlegia.



Otsagiko boboa (Nafarroa), bere ohialezko maskara bizefaloaz burua estalita erakutsiz (R. Violant-en *El Pirineo español* liburutik, 629 or., 1943ko argazkia).

3.2.4. Maskara, dantza eta antzerkia

Otsagiko boboaren maskaran gauzarik nabariena, zalantzarik gabe, “bifrontea” izatea da, hau da, bi aurpegi erakustea, bata aurrera eta bestea atzera begira. Beste aldetik, bere jantzi arlekinatua ikusita, margo aurkakotasun hori maskara eramatea ez da arazo harrigarria. Azken buruan, maskara bera janzkera osoaren beste elementu bat da, osagarria eta garrantzitsu zalantzarik gabe, eta kasu honetan nortasun handikoa gainera.

Uda garaian Penintsula osoan, han hemenka, dantzatzen diren saga koreografikoetan parekotasun zehatzak badaude: gizonen dantzak izaten dira; taldeko partaideen kopurua nahiko mugatuta aurkitzen da, non zortzi dantzari gehi dantza maisu bat arruntena izaten den; janzkeraren ikus puntutik, dantzari eta buruzagiaren arteko desberdintasunak oso nabariak dira adibide ugarian, eta badakigu iraganean gehiagokoa izan dela kuantitatiboki; dantzarien janzkeran zurtasuna nagusitzen da, eta hor emakumezkoren jantzi-elementuak kokatzen dira (koloretako zintak, xal eta zapiak, gonak, gonazpikoak); dantza maisuen kasuan, berriz, zurtasuna ez da ezaugarri bat, eta bai margoetako aurkakotasuna, hau da, koloreak aurrez aurre kokatzea jaka, galtza, galtzerdietan...; gainera, azken hauek kasu askotan maskara janzten dute, oihalezkoa gehienetan; erakustaldi koreografikoetan tresna dantzak garatzen dituzte (makila, ezpata, uztai, zinta dantzak, eta beste genero batzuk), eta hauekin ere, prozesioetan batez ere, kriskitin dantzak lekuko deidadearen aurrean funtsezko dantzak izaten dira.

Boboa bezalako pertsonaia hauen garapen eta nortasunean pixka bat sakondu beharko genuke orain. Otsagiko *boboa* gogorazten diguten antzeko pertsonaiak arruntak izan ziren Europako Erdi Aroko folklorean. Berez, gaur dakigunez inguru herritarretatik antzerki eta korteetaraino iritsi ziren.

Otsagiko informatzaile adintsuekin solasean, eta izen horren zergatiaz galde-tuak, erantzuna argitsua izan da: “se le llama ‘el bobo’ porque hacía muchas bobadas” (gaur egun pertsonaia honen seriotasuna ez da horrenbesteko berariazko ezaugarria; duela gutxi arte, bere betebeharrean barregarrikeriak egitea bazegoen ere). Ikerlariak horrelako pertsonaiak beti “eroekin” parekatu dituzte, harreman zuzenak bilaturik. “Fous” deituriko mozorroto eta maskaratutakoek garrantzi handia izan zuten jai eta dantzetan XVI. mende arte. Erdi Aroan “momo” deiturikoak aurkitzen ditugu, antzeko nortasuneko izakiak, edota korteetako bufoiak, halako batzuk bakarrik aipatzearren.

Antzerkiaren arloan, eta Penintsularekiko arazoekin jarraitzen, hona hemen A. Salazarren ohar laburra baino esanguratsuagoa guretzat:

... El ‘stupidus’ de las farsas atelanas, que exhibía un gran falo, divertía a los rústicos con sus ruidosas vestosidades y recibía las bofetadas de los demás actores, constituyendo uno de los más gustados caracteres del mimo, después del momo o remedador, en seguida de sot francés, del clown en Shakespeare y del bobo en nuestro teatro desde los últimos años del siglo XV²¹.

Dirudienez, pertsonaia hauek kultura herritarretik antzerkira igaro zirela gogoratu beharko genuke berriro. Europaren iraganean historia luzea zeramaten garai horretarako, errito herritar eta jaietan hain zuzen ere. Antzezenetan nortasun barregarritzko pertsonaia da *bobo*. Otsagin, izen berdinak denboran zehar iraindu du. Jantzera arlekinatua ere bai. Baina, Penintsulako beste lekuetan izen desberdinak entzun ditzakegu: *botargá*, *cachi*, *cachimorro*, *cachiberrio*, *cachirulo*, *zurramoscas*, *zarragón*, eta beste hain beste. Izen ezberdinak, baina nortasun berdineko pertsonaiak, oso garrantzitsuak izan direnak saga koreografikoetan. Askotan, mozorroituriko hau dantza maisua bera izaten da, eta gainera, lekuko tradizioaren igoilea. Jantzeraren aldetik ere, parekotasun handi eta nabariak badaude. Hona hemen adibide zehatz batzuk.

Burgosko Villarcayo deituriko lurraldean Espinosa de los Monteros herria kokatzen da, eta bere inguruetan Las Machorras bazterra. Han, abuztuaren 5ean tresna dantzak ematen dira erromerian. Dantzariak, zortzi mutil, *los dantzantes* dira, eta hauekin *el bobo* deiturikoak parte hartzen du erritona era berezian. Azken honek margo askotako jantziak daramatza eta maskara darama aurpegia estaltzeko. Gainera, eskuetan egurrezko artazi luze artikulatuak daramatza. Azken tresna hauek jendearen artean bidea zabaltzeko erabiltzen ditu²².

21. SALAZAR, A., *La música en la sociedad europea. I. Desde los primeros tiempos cristianos*, 410 or. (Madril, 1989).

22. RÍO, J. del, *Danzas típicas burgalesas*, 64-65 or., argazkia 72 orrialdean (Burgos, 1975).

Hurrengo adibidea Guadalajarako Majaelayo herrikoa da. Lehen, jaiak eta dantza urtarilaren hirugarren asteburuan ospatzen ziren, nahiz eta egun irailaren lehenengora eraman dituzten. Zortzi dantzarietako parte hartzen dute garapen koreografikoan. Hauen burua *el botarga* deiturikoa da. Bere janzkeran, jaka eta galtzak zintzarriz josiak, margo urdin eta gorria nagusitzen dira, eta bandetan aurkakotasuna erakusten dute. Jakatik txanoa ateratzen da, eta aurpegian egurrezko maskara darama, egur landua, aurpegi bakarrarekin (atzealdea txanoak ezkutatzen du). Eskuetan, makila bat erabiltzen du²³.

Guadalajara aldean jarraituz, beste bi lekutan *el botarga* deiturikoak maskara janzten zuen. El Vado herrian gizonak berak bere maskara kartoiez egiten zuen, eta ikatzez margotzen zuen. Bekainetan eta bibotean zaldi-ileak elkartzen zituen. Villaseca de Uceda herrian, hango botarga dantzarien laguntzaz agertzen zen jaietan dantzak erakusteko. Maskara janzten zuen aurpegia estali nahian. Honek, gizonezkoaren neurri gaineko aurpegiera erakusten zuen²⁴.

Palenciako Cisneros herrian dantzak irailaren hasieran izaten dira. Zortzi dantzarietako parte hartzen dute, zuriz jantzita, gonazpikoarekin, zapia buruan, eta abar. Makila dantzak eta beste tresna dantzak erakusten dituzte. Taldeko zuzendaria *el chiborra* da. Honek, margo askotako jantzia loredun, jaka eta galtza lasak daramatza. Aurpegian, maskara ezartzen du²⁵.

Hurrengoa Zamorakoa da, Sanzóllez del Vino herrikoa. Dantzarietako *zangarrón* deiturikoa agertzen da. Bere maskara larru beltzekoa da. Buru gainean, margotako zinta luze asko daramatza, bizkar eta sorbaldatik erorita. Maskara honetan sudurra, ahoa, begiak eta bekainak ez dira falta. Eskuan daraman makilez umeak zirikatzen ditu. Bere jantzia ere oso bitxia da²⁶.

Antzeko pertsonaia maskaradunak beste leku askotan ere aurkitzen dira: Castriello de Murcian (Burgos), *el colacho* deiturikoak, lehen ahuntz aurpegi antzeko maskara zeraman, nahiz eta orain edozein motatakoa egokia izan; Valdenuño-Fernández herrian (Guadalajara), *la botarga* izenez ezaguturiko pertsonaia maskara zeraman iragan hurbilean; eta horrela, beste asko. Adibideak dira, azken batean.

Maskarak ez dira arraroak gaur egun pertsonaia hauengan, lehenaldian guxtiago oraingoz, jakin dezakegun bezala. Antzekotasunak kasu gehienetan zehatzak eta esanguratsuak dira. Aipaturiko adibide guztietan, eta guk ezagutu ditugun besteetan ere, maskara “monofrontea” da. Baina, ezaugarri berdinetako

23. LÓPEZ DE LOS MOZOS, J. R., “Dos botargas de ciclo invernal en Majaelayo (Guadalajara): conclusiones definitivas”, *Revista de Folklore* aldizkaria, 4.1. alea, 82-83 or. (Valladolid, 1984).

24. LÓPEZ DE LOS MOZOS, J. R. eta MATEO VIÑUALES, R., “Tres botargas desaparecidas: las de El Vado, Viñuelas y Villaseca de Uceda”, *Revista de Folklore* aldizkaria, 4.2. alea, 118-124 or. (Valladolid, 1984).

25. GONZÁLEZ CASARRUBIOS, C., “Danzas palentinas”, *Narria* aldizkaria, 14 zk., 26-29 or. (Madril, 1979).

26. GONZÁLEZ PENA, M. L., “La fiesta del zangarrón en Sanzóllez del Vino”, *Narria* aldizkaria, 20 zk., 32-34 or. (Madril, 1980).

testuinguruetan eta gure inguruetatik begirada emanda, Otsagiko *boboaren* maskara bezalakoak ez dugu aurkitu beste lekuetan orain arte, maskara “bifrontea”. Hor datza bere berezitasuna. Beste elementu guztiak, pertsonaian eta erri-toan ere, arruntak dira Penintsula osoan.

3.3. Oñati

Gipuzkoako herri eder hau Aizkorri azpiko ibarrean kokatzen da, Deba ibaia-
ren haran buruan. Bere gainean mendi garaiak altxatzen diren heinean, ingurue-
tan zelai eta basoak nagusitzen dira. Han hemenka, baserriak belardi eta soroe-
tan zutitzen dira. Bere barneak harrizko etxe dotore ugari erakusten du. Bi
eraikipen azpimarratu behar baldin badira, horiek unibertsitatea eta eliza dira.

Mendeetan zehar biztanleen bizimodua artzaintza eta nekazaritzan kokatu
da. Inguruko errekak eta Deba ibaia erabiliz, burdinola ez dira eskasak izan. Gaur
egun, industrializazioa oso nabaria da herrian. Hala eta guztiz ere, ez du bere ar-
tzain eta nekazal nortasuna zeharo galdu. Honi guztiari gehituta, Oñati “jauntxo-
en” herria izan dela esan behar da. Gainera, historian zehar garapen gremiala
handia izan du. Nolabait esateko, giro hiritarrak margotu da denboran. Mota
askotako desberdintasunak agerian daude inguruko herriekin konparatzen badu-
gu, herriaren barne egituraren, eraikuntzetan, historian, elizan, eta abar. Abe-
rastasun eta berezitasun ekonomiko honek bere distira izan du boterearen era-
kuste publikoetan, Gorpuzti eguneko prozesioan bezalakoan, adibidez.

Hizkuntzaren perspektibatik, bere euskara bizkaiera dela, edota hobeki esan-
da horren aldaera, gauza jakina da, nahiz eta administratiboko Oñati Gipuzkoan
kokatuta dagoen. Era berean, aspektu koreografiko tradizionalak herri honen
dantzak Bizkaiko Durango aldera eramaten dituzte.

3.3.1. Korpus eguneko jaiak

Herriko jai nagusiak, santu zaindariaren omenez antolatzen direnak, irailaren
28 inguruan gertatzen dira. Gaur egun, jai horietan ez dago dantza berezirik.
Baina, herri osoak Gorpuzti eguneko erritoak oso era berezian bizi egiten ditu.
Berez, Oñatin garaturiko dantzak, eta hauei gehituta maskarak, *Gorpuzti- dantzak*
dira. Egun horretan herrian prozesio nagusia kaleratzen da. Santu desberdinen
irudiek parte hartzen dute, gizonak bizkarretan garraiatuta. Baita ere, udal eta eliz
agintariak leku berezia hartzen dute jarraigoan. Musika ez da falta, eta dantzak
ere ez. Kaleak belarrez estaltzen dira, alfonbra luze eta zabala osatuz. Jendea
espaloietan jartzen da, asko eta asko komitibari jarraitzen dioten bitartean.

Dantzariak zortzi gizon dira, eta hauek zuzentzeko *kapitaina* dago, taldearen
arduraduna. Azken hau, bai janzkeran eta bai erritoan parte hartzean, bere apu-
piloengandik desberdintzen da. Dantzariak alkandora zuria eta margo berdineko
galtza luzea janzten dituzte. Galtza gainean gona gorria ipintzen dute, gaur egun
hanka erdiraino, gutxi gora behera. Gona honek erremate zuri bat erakusten du
bere behealdean. Telazko banda gorri zabal batek bular eta sorbalda gurutzatzen

ditu, bizkarretik aurkako gerrialdera jaisten, non korapilatzen den. Eskumuturretatik zinta gorri zabala heltzen da, apaindura moduan. Lepotik gorbata gorria zintzilikatzen da. Espartin zuri zinta gorridunek janzkera osatzen dute.

Kapitainak antzeko janzkera darama, baina kasu honetan gona, gorbata eta zinta guztiak gorriak izan ordez, urdin ilunak dira. Gainera, gonak bi zinta zuriren bitartez errematatzen da.

Hauetaz gain, maskaradun batzuek ere parte zuzena hartzen dute jarraigoan. Ez dute dantza egiten, ez dira dantza edo musikariak. Kortejoan hamabi apostoluak, Kristo, Amabirjina eta San Migel arkangelaren irudi bizidunak kaleratzen dira. Bakoitzak bere janzkera darama, irudikatu nahi duten pertsonaiaren inguruko topikoen arabera. Osatuena San Migeli dagokiona da, zalantzarik gabe. Bere hegala eta koraza ez zaizkio falta janzkeran. Bakoitzak, gainera, berariazko maskara erakusten du, hau da, berari dagokion maskara zehatza, gero azalduko dugun moduan. Azken hauek guztiak maskaradun isilak dira, oso zurrunak. Prozesioan bi lerrotan ibiltzen dira, inongo keinu edo zirkinik egin gabe. Bakarrik, denek artean San Migel aurreratzen da. Bi lerroen artean kokatuta, makila-gurutze luzea eskuetan eraman behar du, eta martzialki ibiltzean makilez baliatzen da.

3.3.2. Jaiaren elementuak

Goizean, prozesioan parte hartzen duten irudi guztiak elizaraino eraman behar dira, han bertan ez baitaude gordeta, herriko beste leku eta elizatxoetan baizik. Haien bila dantzariak joango dira, bi lerrotan antolatuta eta kapitaina buruan, kriskitinak joko. Horrela, irudi bakoitzari elizaraino eskolta ematen zaio.

Meza nagusia ospatzen ari den bitartean, alboko komentuan maskaradunek beren janzkeren jabe bihurtzen dira, eta ondoko zelaira ateratzen dira, dantzariak agertzen zaizkien arte. Horiei ere eskolta emango zaie eliza ateraino. Han, meza amaituta, prozesioari hasiera emango zaio: dantzariak, maskaradunak San Migelekin bi lerroen artean, kaliza paliopetan, apaizak, alkate eta zinegotziak, musikariak, Oñatiko biztanleak ...

*San Sebastian zortziko*a deritzan doinuaren arabera, dantzariak koreografia bat ematen dute kriskitinen laguntzaz, eta jarraioaren bi lerroetatik barne sartzen dira, gero atzerako bidean aritzeko berriz bururaino iritsi arte. Gauzak horrela, herriko kaleetatik buelta zabala ematen da, berriro elizara iritsi arte. Hemen, segizioa desagertzen da. Horrela, maskaradunak hurrengo urte arte desagertzen dira.

Arratsaldean, herriko enparantzan, dantzariak tresna desberdinez lagunduriko dantza batzuk erakutsiko dituzte, jende guztiaren aurrean. Hor, esate baterako, makila dantza batzuk badaude. Dantzari bakoitzak makila bakarra erabiltzen du. Hona hemen dantzen izenak:

- *Banako jera jera makil dantza*
- *Launako jera jera makil dantza*
- *Zortziko jera jera makil dantza*

Gainera, emanaldia osatuz, *Arku dantza* eder eta konplikatu bat egiten dute. Jaia ez da oraingoz bukatzen. Aurreko koreografia guztiak amaituta, *Soka dantza* plazaratzen da. Hor, herriko emakumeek leku berezia har dezakete.

3.3.3. Maskarak

Lehen esan dugun bezala, Gorpuzti eguneko jarraioan hamabost maskaradunek parte zuzena hartzen dute. Horietariko hamabi apostoluak dira. Besteak Kristo, Ama Birjina eta San Migel dira. Bakoitzak bere maskara erakusten du, denak desberdinak zerbaitetan. Egun, paper pastaz egiten dira. Oso errealistak dira, hau da, irudikatzen duten pertsonaiaren aurpegia erakutsi nahi dute, keinu eta elementu guztiak normaltasunez azalduta. Margoa ere gizakiaren azalarena dute. Begientzat zuloak ez dira falta kasu hauetan, eta arnasa hartzeko zulo txikiak sudurrean ere ez. Ahoak itxita daude, inongo zulorik gabe kasu guztietan. Maskara ugari bizardunak dira, pertsonaien topiko jakinei jarraitu nahian. Hau gertatzen da Kristo eta San Pedroren kasuetan, eta beste batzuetan ere. Biboteak bakarrik ere ikusten dira aurpegi-maskara batzuetan. San Migelek ez du bizarrik. Ilea ere material berdinez irudikatzen da.



Oñatiko jarraigoaren irudi maskaradunak. Apostoluen artean, San Migel bere maskara bereziarekin (Gipuzkoa).

Aurpegi osoa estaltzen dute, eta buru gehiena ere bai, buruaren atzealdera zabaltzen baitira, belarriak estaliz. Koroa daramate, desberdinak Kristo eta apostoluenak azaldu nahi direlarik. San Migelek, koroa ordez kapela berezia darama, luma handiez gainaldean apainduta, luma-apaingarri eder bat.

Horrez gain, maskaradun bakoitzak berari dagokion janzkera darama. Apostolu guztiak berdina, gutxi gora behera. Kristo eta Ama Birjinak berena, eta San Migelena oso berariazkoa da, elementuetan konplexu eta aberatsagoa. Alegia, azken honek koraza erakusten du, eta atzealdean hegaltxoak. Apostoluengan, beren nortasunak jakinarazten duten elementuak ez dira falta. Horra hor, esate baterako San Pedroren kasua. Honek zeruko giltza handiak garraiatzen ditu. Beste batek ezpata, edo lantza bat, edota zirioak, eta abar.

3.3.4. Korpus jaiari buruzko perspektiba orokorra

Oñatiko errito konplexua Gorpuzti jaiaren inguruan aritzen da. Maskarak ez dira dantzarien tresnak. Talde zuzendari edo maisuarena ere ez, gutxienez azken mendeetan, eta egun jakin dezakegunaren arabera.



Oñatiko maskaradunen taldea elizarako bidean (Gipuzkoa).

Jarraigoan beste pertsonaiek parte hartzen dute, zalantzarik gabe dantzariak baino askoz hieratikagoak direnak. Nolabait, figuranteak dira prozesioan, hau da, beste nortasunak erakutsi nahi dituzten heinean, ibiltzea besterik ez dute egiten. Hala eta guztiz ere, hitz hauek kontuan hartu behar dira. Zerbait erakutsi nahi dute, eta hor dago haien betebeharra, hain zuzen ere. Gorpuztia eguneko

erritoetan horrelako pertsonaia eta maskarak ez dira arraroak izan iraganean. Aitzitik, herri nagusi eta hirietan, batez ere herri katedralduna baldin bazen, honelako kortejoak oso arruntak izan dira. Katedrala baldin badago, lekuko Eliza boteretsu eta aberatsa delako izaten da, beste gauza batzuen artean, eta herria bera ere bai, neurri batean gutxienez. Orduan, egoera horretan prozesioak ere aberatsagoak izan ohi dira, osagarriak diren elementuen konplexutasunaz ari bagara, eta ekonomiaz ere, jakina.

Aurreko guztia bere garapen hiritarraren eskutik helduta joan da denboran. Herriko nobleziak, lan gremioek eta elizak berak zer esan handia izan dute.

Ez dagokigu hemen Gorpuzti jaiaren azalpen zabal eta sakona egitea. Bakarrik, egoera zehatz batzuk konparatu nahi ditugu, hau da, garrantzia berdineko herri eta hirietako Gorpuzti prozesioak aurrez aurre jarri behar direlakoan gaude Oñatiko egoera ulertzeko, eta hortik abiatuz, maskara berezi horien zergatia ere ulergarri bihurtu dakiguke. Jaiaren jatorriaren ohar batzuekin hasiko gara.

1263. urtean, Urbano IV deituriko Papan, "Transitarus de hoc mundi" bularen bitartez Gorpuzti jai izendatu zuen. Hasieran, bakarrik Erroman ospatu zen. Jaiaren eguna ez zen zeharo finkatu une hartan. Baina, dirudienek, jai honen aurrekariak antzeko beste ospakizun eta prozesioetan zegoen. Hara hor, esate baterako, Angersekoa (gutxienez 1019tik aurrera ziurtasunez antolatzen zena), Darocakoa (1239tik aurrera), San Juan de la Peñakoa, Zaragozakoa, Bolsenako eta Orvietokoak Italian, eta beste batzuk ere bai.

Beranduago, Vienako Kontzilioan 1311an Klemente V.ak mundu kristau osoan jaiaren beharrezko ospakizuna agintzen du. Agintearen idazketa Santo Tomas Akinokoak egin zuen.

1280ko Toledoko prozesioan Alfonso Jakintzu erregeak parte hartu zuen. 1282an Sevillan jaiaren ospakizuna egiten da, eta 1306an Kolonian ere bai. Esan dugun bezala, baieztapena 1311an egiten da kontzilioan bertan. Hortik aurrera ospatzearen adierazpenak oso ugariak dira leku Europako guztietan: Gerona, Vorms, Strasburgo, Bartzelona, Chartres...

Jai eta prozesio hauek, inguru hiritarrean batez ere, oso konplexuak ziren. J. Caro Barojak horrelako elementu edo osagarri orokorrak aipatzen ditu jarraio haietan:

1. De gran abundancia de adornos callejeros de carácter vegetal: enramadas de fachadas, juncias, helechos y otras plantas en los suelos.
2. De danzas de carácter gremial o campesino, como las que tienen lugar en las fiestas patronales, de primavera y verano sobre todo: paloteados, etc.
3. De figuras tales como gigantes, cabezudos y enanos.
4. De representaciones de animales (mulas, toros, águilas) o monstruos (como la 'tarasca') con significado simbólico en gran parte.
5. De 'caballitos', es decir, de jinetes en caballos armados.

6. De otros personajes, más o menos simbólicos o burlescos, como vejigueros, mojigones, etc.²⁷.

Zerrenda ez dago zeharo osatuta, eta lekuaren arabera finkatu beharko litza-teke. Baina, nolabait esateko, gutxienez har daiteke, oinarri esanguratsua. Alde batetik, jai sinkretikoa dela begi bistan geratzen da. Beste aldetik, orbe osoan jai normalizatuaren nortasuna hartzen du, hau da, homogenitatea bilatzen da leku guztietatik, gutxienezko elementu horien arabera. Herri txikiek, ahal zuten neurrian, norma horri ere jarraitu nahi zioten.

Leku gehienetan, Oñatin bezala, Gorpuzi jaia gremioei lotuta agertzen da. Bere barnean, elementu biblikoak oso ugariak dira. Testamentuko pertsonaiak irudikatzen dira prozesioetan: ebanjelistak, beste apostoluak, Kristo, Amabirjina, patriarkak, profetak, eta abar. Bertuteak ez ziren arraroak beste lekuetan, edota santu desberdinak: San Kristobal, San Migel... Jantzera berezietatik eta maskarek lagunduta, irudikapena lortzen da. Askotan, pertsonaia hauek figuranteak besterik ez dira. Baina, Gorpuzi eguneko errituen artean autoak deiturikoak kokatzen dira, hau da, antzeppen sakramentalak, eta hor bibliaren pasadizo ospetsuetako pertsonaia ordekoek leku garrantzitsua eskuratzen dute, autoak antzeppen direnean ikusleek aurrean, prozesioan barnean, edota tabladietan²⁸.

Oñatin gertatu eta gertatzen den bezala, beste toki batzuetako prozesioetan pertsonaia berezia San Migel arkangela ere izaten zen. Honek “tarasca” edo herensuge erraldoia erail behar zuen antzeppenean. Horra hor, esate baterako, Madrilgoa, non San Migelek Mahomaren burua mozten zuen²⁹.

Pertsonaia biblikoen irudikapenak oso errealistak izaten ziren auto hauetan. Izaki horien ikur elementu testamentalak gehitzen ziren: San Pedroren giltzak, San Migelen ezpata, San Markosen lehoia, eta besteak. Jantzi eta maskarek ere errealtatera jotzen zuten, beti bibliaren topikoei jarraituz.

Oñatiko maskarek ez dute abstrakzioa bilatzen, ez dira ikurrak, aurpegi zehatzak baizik, beste lekuetako Gorpuzi eguneko prozesioetan bilatu eta lortu den bezala.

4. ONDORIO BATZUK

4.1. Jaia eta maskara

Euskal Herrian, eta inguruetan ere, mendeetan maskarak tradizio herritarrari helduta iraun du. Horrela iritsi zaigu gaur arte. Hain zuzen ere, maskara eta erri-

27. CARO BAROJA, J., *El estío festivo. Fiestas populares del verano*, 53 or. (Madril, 1984).

28. Adibide moduan, eta bat adierazteagatik, horra hor Zaragozako Gorpuzi eguneko jarraioa, gremioen partaidetza zuzena eta ezinbestekoa, auto sakramentalak, pertsonaia biblikoak, “tarasca” eta abar. Ikus E. Serrano Martinen *Tradiciones festivas zaragozanas. Historia de los festejos populares en Zaragoza*, 192-210 or. (Zaragoza, 1981).

29. CARO BAROJA, J., *El estío ...*, 71-72 or.

toak bat egin dute jaiari bertan. Lanaren hasieran aipatu dugun bezala, tradizioan ez dago maskararik errito zehatzari lotuta ez dagoenik. Hots, alderantzizko harremana ez da maila kuantitatibo berdinekoa. Urteetan zehar bilakatu diren errito askok ez dute inondik ere maskararen beharrik.

Maskararen erabilera Euskal Herrian bi urtaroetan zabaltzen da, eta, jakina, urteko bi sasoi hauen jaiari gainean oinarritzen da. Alde batetik, negua dela eta, maskara inauterietako lehentasuneko osagarria izan da, gaur egungo egoera desberdina bada ere. Guk, objektu batzuk behatu eta azaldu ditugu, nolabait nortasun herritarra erakusten dutelako, eta tradizioaren beraren ondorioak baitira. Baina, inauteriak biziki indartsuak zeudenean, hau da, XX. mende hasierako hiru edo lau hamarkadetan, maskara funtsezko janzkera-elementua izaten zen. Lekuko tradizioan oinarrituak zein kanpotik ekarri eta erositakoak izan, karatula nahitaezko objektua bazela oso nabaria da.

Bestetik, maskarak udako jaiari ere eutsi die. Zalantzarik gabe, kuantitatiboki ez dago parekotasunik bi urtaro horien egoeren artean. Baina, uda inguruan ere maskarak kaleratu direla onartu behar da, maila apalagoan gerta zitekeen arren. Udako erritoak ez dira, oro har, negukoak bezain zehatzak, zabalagoak baizik. Jai aukera gehiago eskaintzen da. Denboran ere, uda inguruko erritoak apirila edo maiatzean hasi eta gutxienez urria edo azaro arte luza daitezke. Urtaro zabal honek erritoarekiko fase desberdinak gainditzen ditu, eta fase bakoitzak bere jaiak eskaintzen ditu.

Udan, maskarak maila desberdinetan kaleratu dira. Aldez aurretik, egungo egoera ez dela oso esanguratsua esan behar da. Iragan aberatsagoaren berria udal artxibo eta beste dokumentuek ematen digute. Horra hor, esate baterako, mozorrotu maskaradunen agerraldiak zenbait herritako udako jaietan (Oiartzungo kasua gogora dezagun, sanjuanetan hain zuzen). Edo, dantzari maskadunen ezpata dantza Donostiako iraganeko Gorpuuzti egunean. Azken jai eta prozesio hauek direla eta, hona hemen ere oraingoz bizirik gelditzen zaigun errito zabal eta oparoa Oñatin, non jarraigoan figurante bibliko maskaradunek haien hieratismoa herriko kaleetan erakusten duten.

Otsagiko jaiari arazoa aipagarria da, zalantzarik gabe. Maskara dantza maisuaren objektua da, ez dantzariena. Antzeko egoera Penintsula osoan aurki dezakegu, eta multzo orokor berdineko dantza sagak ere bai. Ondorioz, udako jaietan maskarak maila desberdineko erabilerak izan dituela begi aurrean gelditzen da. Esparru horretan ere garrantzia handiko objektua izan dela behatzen da.

4.2. Eiteak

Euskal tradizioan maskarak egiteko material nagusienak bat baino gehiago izan dira. Oihalak hedapen handia hartu du, mota desberdinetako ehunak erabili dira, batzuetan oso meheak eta ia gardenak, besteetan lodi-lodiak. Gainera, oihal hutsa leku askotan aurkitzen dugun arren, beste tokietan oso landua izan da. Kasu hauetan sormen handiko apaingarriak gehitu zaizkie.

Larruaren erabileraren ohiturak adibide batzuk erakutsi dizkigu. Ziurrena ere, aukera honek iraganean oraingo aberatsagoa izan da.

Kartoia ere erabilia izan da kasu batzuetan tradizio herritarrean. Beste aldetik, material honen maneiatzea hiri nagusietako neguko jaietan oraingo ez da amaitu.

Metalezko adibide bakarra aurkitu dugu, Unanuarena. Beste aldetik, egurra ez zaigu inoiz aipatu, baina Euskal Herriko inguruko egoera behatuta, iraganean tradizioko materiala izan dela nahiko logikoa dirudi, etnografikoki baieztatu gabe gelditzen den arren.

Oihalezko maskara asko oso sinpleak izan dira: zapi edo tela mehe bat, buru osoa estaltzeko bezain zabala, eta buruaren atzealdean korapilatuta. Batzuetan, begi edota ahoarentzat zuloak egiten dira, besteetan ez. Oihala lodia denean, maskara honek nahitaezko zuloak agintzen ditu. Gainera, Lapurdin gertatzen den bezala, berezko tela asko apain daiteke, baina eskema zehatzari jarraituz, ez edozein modutan. Azken maska hauek abstrakziorako bidean urrats bat luzatzen dute.

Larruzko maskara batzuk oso latzak izan dira. Horra hor Zuberoakoak. Soilik, ahuntz larru pusketa bat begientzat zulatuta, eta buru atzean lotuta bi lokarritz nahikoa izan da. Hartz maskarak konplexuagoak dira, batez ere buru osoa estaltzeko sortuak baitira, eta ondorioz azpiko edo barne egitura osatuagoak behar dituzte. Azken hauek irudikapen zoomorfikoari jarraitu diote.

Maskara antropomorfitakoak edo sasi-antropomorfitakoak ugariak izan dira. Nolabait, Unanuakoak maila honetakoak izan daitezke, eta Oñatikoak behatuz gero, errealismoa handikoak direla nabartzen dugu.

4.3. Iragana eta oraina

Maskararen orainaldiak ez digu iragan oparoaren ideia zehatza eskaintzen. Artxiobotara jotzen badugu, oraingo egoera itzala besterik ez dela ohartzen dugu. Mendeetan zehar egindako bide honetan aukera asko baztertuta gelditu dira, eta horien aztarnak oso ahulak dira. Dokumentuetan aipatzen diren maskara horien guztien era zehatzak ez ditugu jaso. Nolakoak izan ziren ez dakigu. Hipotesiak gauzatzearen, ingurua behatzen dugu askotan, han eta hemen gauzak ezin zitezkeelako txit desberdinak izan, batez ere antzeko azturak, bizi moduak, ingurumenarekiko mendetasuna... gorde direlarik. Konparaketa tresna lagungarria da, zalantzarik gabe, konparaketa horretan elementu guztiak jokoan jartzen baditugu, hau da, maskararen testuinguru osoa erabiltzen badugu, fikziotik ihes eginda.

Edozein kasutan, gaur arte iritsi zaizkigun maskarak oso esanguratsuak dira, eta ikur aspektuetan ere hagitx adierazkorrak. Iragan galdu eta ahaztuen aztarnak dira, ziurki tradizioaren azkenaldia, dagozkien errituen azkenaldia den heinean.

5. BIBLIOGRAFIA

5.1. Maskarei buruzko lanak eta liburu orokorrak

Ondoko liburu eta idazlanetan maskarak aztertzen dira, bai objektu etnografikotzat hartuta, bai haien funtzioaz, edota aspektu erlijioso eta sinbolikoaz. Lan orokorrak dira. Liburu batzuk maskararen azterketari dagokie zeharo; besteetan, ostera, atal bat edo batzuk bakarrik erabiltzen direnez.

ANQUETIL, J., *L'artisanat créateur. Afrique Noire I – II*, ISBN: 2-249-27400-2 (Paris, 1977).

LÉVI-STRAUSS, C., *Antropología estructural*, ISBN: 84-7509-449-X (Bartzelona, 1987).

LÉVI-STRAUSS, C., *La vía de las máscaras*, ISBN: 968-23-1068-7 (Mexiko, 1989).

MCLEOD, M. eta MACK, J., *Ethnic sculpture*, ISBN: 0-7141-2028-6 (London, 1985).

RAMÍREZ DE LUCAS, J., “La belleza y el misterio de la máscara”, *Revista de Arqueología* aldizkaria, 10 zk., 50-55 or. (Madril, 1980).

TEUTEN, T., *Masks*, ISBN: 1-85891-201-6 (London, 1995).

5.2. Maskarak Euskal Herriko erritoetan

Gaur arte, euskal tradizioetako maskarei buruz ez da lan zehatzik argitaratu. Ondoko ohar bibliografikoetan, batez ere maskarak erabiltzen diren jai, errito eta dantzei buruzko informazioa aurki daiteke. Kasu gehienetan maskarak gainetik aipatzen dira morfologia eta beste aspektuetan sakondu gabe.

CARO BAROJA, J., “Una fiesta de buena vecindad”, *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* aldizkaria, 26 alea (Madril, 1970).

CARO BAROJA, J., *Estudios Vascos III. Baile, familia, trabajo*, ISBN: 84-7148-028-X (Iruñea, 1976).

DUVERT, M., “Maskak”, *Dantzariak* aldizkaria, 45 zk., 7-15 or. (Bilbo, 1989).

GARCÍA PÉREZ, J. M., *La M. N. y M. L. Villa de Labastida*, ISBN: 398-4424-7 (Gasteiz, 1985).

GARMENDIA LARRAÑAGA, J., *Iñauteria. El Carnaval vasco*, ISBN: 84-7173-036-7 (Donostia, 1973).

GARMENDIA LARRAÑAGA, J., *Carnaval en Alava*, ISBN: 84-7407-121-6 (Donostia, 1982).

GARMENDIA LARRAÑAGA, J., *Carnaval en Navarra*, ISBN: 84-7407-208-5 (Iruñea, 1984).

GUILCHER, J. M., “Danses et cortèges traditionnels du Carnaval en Pays de Labourd”, *Bulletin du Musée Basque*, zk. 46 (Baiona, 1969).

GUILCHER, J. M., *La tradition de danse en Béarn et Pays Basque Français*, ISBN: 2-901725-63-5 (Paris, 1984).

HÉRELLE, G., “Les macarades souletines”, *R.I.E.V.*, VIII. alea, 368-385 or. (1922).

- HÉRELLE, G., "Les mascarades souletines", *R.I.E.V.*, XIV. alea, 159-190 or. (1923)
- HÉRELLE, G., "Las mascaradas suletinas", bi ataletan, *Dantzariak*, 26 zk., 24-41 or.; eta 27 zk., 36-52 or. (Bilbo, 1983).
- JIMENO JURÍO, J. M., "La fiesta del Corpus en Tierra Estella", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkaria, 50 zk., 197-237 or. (Iruñea, 1987).
- "Markiñako iñauteriak", *Dantzariak aldizkaria*, 8 zk., 18-27 or., (Bilbo, 1979).
- MÚGICA, S., "Antiguas costumbres. Las máscaras", *Euskalerrriaren Alde aldizkaria*, 78 zb., 165-168 or.
- MURUA, A., "Fiestas y danzas en Legazpia", *Dantzariak aldizkaria*, 32 zk., 18-47 or. (Bilbo, 1986).
- Nafarroako E. D. B. eta Iruñako Gaiteroak, "Danzas de Ochagavía", *Dantzariak aldizkaria*, 28 zk., 4-28 or. (Bilbo, 1984).
- TRUFFAUT, T., "Carnaval Labourdin", *Dantzariak aldizkaria*, 20 zk., 20-33 or. (Bilbo, 1982).

5.3. Beste bibliografia lagungarria

Ondorengo bibliografian, testuan zehar erabilitako idazlan batzuk agertzen dira, baina aipatu gabeko irakurgai interesgarri batzuk ere biltzen dira, maskarek buruz zein maskara inguruko erritoez.

- ALFORD, V., "The springtime bear in the Pyrenees", *Folk-Lore* aldizkaria, XLI. alea, 266-279 or. (London, 1930).
- CARO BAROJA, J., "Mascaradas de invierno en España y otras partes", *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, XIX. alea, 1. koaderno (Madril, 1963).
- CARO BAROJA, J., *El estío festivo. Fiestas populares del verano*, ISBN: 84-306-3510-6 (Madril, 1984).
- E. D. B. Nafarroa, "El carnaval de Alsasua", *Dantzariak aldizkaria*, 35 zk., 5-18 or. (Bilbo, 1986).
- GARCÍA LOMAS, A., *Estudio del dialecto popular montañés, etimología fonética y glosario de voces* (Donostia, 1922).
- GIORDANO, O., *Religiosidad popular en la Alta Edad Media*, ISBN: 84-249-0340-4 (Madril, 1995).
- GOMARÍN GUIRADO, F., "El carnaval en un valle de la Cantabria suroccidental", *Revista de Folklore* aldizkarian, 51 zk., 93-107 or. (Valladolid, 1985).
- GONZÁLEZ CASARRUBIOS, C., "Danzas palentinas", *Narria* aldizkaria, 14 zk., 26-29 or. (Madril, 1979).
- GONZÁLEZ PENA, M. L., "La fiesta del zangarrón en Sanzolez del Vino", *Narria* aldizkaria, 20 zk., 32-34 or. (Madril, 1980).
- LÓPEZ DE LOS MOZOS, J. R., "Dos botargas de ciclo invernal en Majaelayo (Gualajara): conclusiones definitivas", *Revista de Folklore* aldizkaria, 4.1. alea, 82-83 or. (Valladolid, 1984).

- LÓPEZ DE LOS MOZOS, J. R. eta MATEO VIÑUALES, R., "Tres botargas desaparecidas: las de El Vado, Viñuelas y Villaseca de Uceda", *Revista de Folklore* aldizkaria, 4.2. alea, 118-124 or. (Valladolid, 1984).
- NUEVO ZARRACINA, D. G., "Guirrios y zamarrones", *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, IV. alea, 2. Koaderno, 242-265 or. (Madril, 1948).
- RÍO, J. del, *Danzas típicas burgalesas*, ISBN: 84-7138-439-6 (Burgos, 1975).
- RISO, V., "Notas sobre las fiestas de carnaval en Galicia", *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* aldizkaria, IV. alea, 2. koaderno, 339-364 or. (Madril, 1948).
- ROMA RIU, J., *Aragón y el carnaval*, ISBN: 84-85303-30-X (Zaragoza, 1980).
- SALAZAR, A., *La música en la sociedad europea. I. Desde los primeros tiempos cristianos*, ISBN: 84-206-8512-7 (Madril, 1989).
- SALAZAR, A., *La música en la sociedad europea. II. Hasta fines del siglo XVIII*, ISBN: 84-206-8513-5 (Madril, 1989).
- SAUNDERS, N. J., *Los espíritus animales*, ISBN: 84-226-5838-0 (Bartzelona, 1996).
- SERRANO MARTÍN, E., *Tradiciones festivas zaragozanas. Historia de los festejos populares de Zaragoza*, ISBN: 84-500-4330-1 (Zaragoza, 1981).
- VIOLANT Y SIMORRA, R., *El Pirineo español* (Madril, 1949).
- VITEBSKY, P., *El chamán*, ISBN: 84-226-5835-6 (Bartzelona, 1996).

INFORMATZAILEAK

- Aizpurua, Jose (Leitza)
Aranburu, Martin (Leitza)
Arbiza, Pedro (Hernani)
Esarte, Pedro (Otsagi)
Etxeberria, Bautista (Ezkurra)
Galarza, Batista (Amezketeta)
García, Jesús (Bastida)
Gómez, Pilar (Eltziego)
Iturralde, Maria Karmen (Errazu)
Lasarte, Maria Pilar (Leitza)
Lizaso, Jose (Iraizotz)
Maizterra, Juana (Aria)
Sanzberro Lauda, Elias (Arizkun)
Tornaria, Timoteo (Autza)
Zabaleta, Batista (Leitza)
Zaldain, Benancio (Amaiur)

BEHAKETA ZUZENAZ JASOTAKO INFORMAZIOA

Bizkaia

Markina (1983/2/13)

Mundaka (1997/2/9)

Gipuzkoa

Abalziketa (1998/2/22)

Amezketeta (1981/3/1, 1998/2/22)

Oñati (1983/7/2)

Hernani (1986/2/8)

Nafarroa

Altsasu (1983/15/2, 1989/2/7)

Arano (1975/2/25, 1987/3/1)

Arizkun (1981/3/3)

Errazu (1987/3/3)

Goizueta (1985/2/19)

Ituren (1983/2/1)

Lesaka (1981/3/1)

Lantze (1979/2/25)

Leitza (1985/2/5)

Otsagi (1994/9/8)

Unanua (1985/6/23, 1989/2/7, 1997/2/11)

Zubieta (1983/2/1)

Zuberoa

Altürükü (1985/1/27)

Larraine (1997/2/2)

José Antonio Quijera Pérez, Nekane Osa Muñoa Masks in Basque tradition

67 or., 2009
ISBN: 978-84-8419-180-3

Copying of the Bibliographic Section page is authorised

Quijera Pérez, José A.; Osa Muñoa, Nekane (Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia): **Maskarak Euskal Herriko tradizioan** (Masks in Basque tradition) (Orig. eu)

In: *Maskarak Euskal Herriko tradizioan*, 1-67

Abstract: The mask is one of the elements comprising different festival rites, both in the Basque Country and in other places. This study of masks starts out from ethnographic aspects and is based on field work. It brings together different types of masks which are classified and analysed in accordance with different criteria. Furthermore, each mask is situated in its corresponding festival or rite, in order to make the study more comprehensible for the researcher and the reader. Finally, a comparison is made in some cases of the masks in the Basque Country with those in surrounding areas.

Key Words: Mask. Fancy dress. Winter fiestas. Summer fiestas.